

ARGIA

**MOHAMMED
OUNASSER**
GAZTE ETA
MIGRATZAILE

Bizitza duina amets

12-16. orriak



**Eskubideak eta
duintasuna urri**

22 | ADINEKO MENPEKOAK



**"Ez dut gustuko
'Alokairuzko
sabelak' terminoa"**

30 | ITZIAR ALKORTA



**Artedramaren azkena:
zaintza, migrazioa,
deserria eta herria**

44 | IANTZERKIA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #260
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



EMAKUME MEATZARIAK

BILBO EZKERRALDEAN

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 17 | DAVID BOU
- 18 | MAIALEN BERSATEGI
- 19 | IÑAKI MURUA
- 19 | UXUE APAOLAZA
- 20 | IRATI TOBAR
- 21 | DABID MARTINEZ

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
MAIDER AIZPURUA
- 54 | BERANDUEGI



DANI BLANCO

22 | MENPEKOTASUNA DUTEN ADINEKOAK

Onintza Iruretak jaso ditu helduen zaintzarekin lotutako hainbat adituren hitzak. Menpeko izanagatik beren bizitzaren gaineko erabakimena behar dutela eta haien zaletasunak, ametsak eta desioak kontuan hartu behar direla azaldu dute. Egungo zahar etxeetan betetzen ez dena, gutxiago pandemia garaian.

Elkarrizketak eta erreportajeak

- 10 | NET HURBIL
AEBetako Amazon-en baitako lehen langile sindikatua sortzeko aukera
Jenofa Berhokoirigoin
- 12 | PERTSONAIA | MOHAMMED OUNASSER
"Villavesan nire ondoko eserlekua beti hutsik egoten da"
Reyes Ilintxeta
- 27 | EUSKARA
Aiaraldeko baserri giroa euskalduntzen egindako lanagatik aitortza
Miel A. Elustondo
- 30 | GIZARTEA | ITZIAR ALKORTA
"Haurrak katean eta mugaz bestalde ekoiztea ez da jasangarria"
June Fernández / Pikara Magazine
- 34 | EKONOMIA
David Goliath aurka Wall Streeten
Mikel Eizagirre

- 36 | BIOANIZTASUNA | SUGE-LEUNA
Zu hobeto jateko!
Iñaki Sanz Azkue

- 38 | EKONOMIA | SOZIALATEEN GAIKEKO ZERGA
EAEko 22 enpresa nagusiek zegokiena baino 225 milioi euro gutxiago ordaindu zuten
Estitxu Eizagirre Kerejeta

- 39 | EUSKARA
Haurrei euskarazko izena jartzea debekatu zuenak kalea du Gasteizen
Lander Arbelaiz Mitxelena

- 44 | KULTURA | ANTZERKIA
Bidaia bat esan nahietara
Ainhoa Mariezkurrena

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaia Taldeko partaidea

Lehendakaria
Bego Zuza

Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Ixone Arana, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Garcia, Oihane Arretxea, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte

Salmenta
Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Idazkaritza
Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012

ISSN
0213-909X

Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

aniza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Urrun bego

Euskaldunon Guantanamoa gorpuzten duen estoldetako txapelokerra hil da. Galindo, proxeneta, hiltzailea, narkoa eta bereziki, torturarena. Baita heriotzaren eguna aukeratzeko ere. Galindo, PSOErena. Xrik gabeko erakundearena. Galindo, erreferentea. Independentismoaren, eta bereziki, ETAren aurkako borrokan, dena balio du, baita Teleberria irekitzeko ere. Galindo, bertsio ofizialarena. Dena gezurra delako. Baita gurean jotzera tiro egiten duen Poliziak torturatu dituen 336 lagun-en hitza ere. Galindo, inpunitatearena. Dominek haren paparra eta gure egia estalirik hil da. Intxaurrondok zabalik segitzen du.

Irudian: Bilbo, Sorturen manifestazioa larunbatean, 'Itzuliko gara eta botako zaituztegu. Torturatzailleak!' lelopean.

 ARITZ LOIOLA / FOKU  AXIER LOPEZ





MOTZEAN

11 urteko haur transexual bati eraso egin diote Iruñerriko parke batean. Adingabearen familiak salaketa jarri du lesioengatik eta gorroto-delituengatik.

Gaztelania derrigorrezkoa izanen da Nafarroako Osasun Departamentuak onartu dituen 114 mediku lanpostu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdietan. Alemaniera, ingelesa eta frantsesa jakiteagatik bina puntu puntu eskuratuko dituzte hautagaiek, baina, euskara dakitenek ez dute puntu gehigarririk izanen.

Urriaren 12an Iruñean Espainiako monarkiaren aurkako ekimen batean parte hartzeagatik ikertutako lagunek Nafarroako Auzitegian deklaratu dute. Adierazpen askatasuna eskatzeko baliatu dute deklarazioa.

Erbetegi dorretxea, Donostiako etxe zaharrenetakoa "hormigoiez estaliko" dutela salatu du AHTren kontrako mugimenduak.

Hezkuntza alorrean burujabetza teknologikoa aldarrikatu du Hezkuntzan Librezale mugimenduak Eusko Legebiltzarrean.



LABIko kide batek ez du itxiera perimetrala errespetatu

 ARGIA

Bilbotik Mungiara (bi udalerriak eremu gorrian) golf zelaira korri egitera joan zela onartu zuen LABIko kide eta Eusko Jaurlaritzako Osasun saileko kide Ibon Etxeberriak. Aire zabalean kirola egiteko herriz aldatzea debekatzen zuen LABIren azken aginduak, baina ez zuela ezer okerrik egin adierazi zuen Etxeberriak. Gotzone Sagardui Osasun sailburuak otsailaren 9an, Gobernu Kontseiluaren osteko prentsaurrekoan iragarri zuen kargutik kenduko zutela Etxeberria.

Urtarrilaren 25eko EAerako aginduen arabera, aire zabalean kirola edo jardun fisikoa bakarrik egiteko ondoko herrira joatea ez zegoen baimenduta, ez bazen kirol profesional edo erdi-profesionalen kasuan. Hala ere, Etxeberriak *El Correo* egunkarian azaldu zuen ez zuela ezer okerrik egin, eta horretarako argudiatu zuen Eusko Jaurlaritzaren Zuzenean zerbitzura deituz gero eta aire zabalean kirola egiteko eremu gorrian dagoen ondoko herrira joan ote gaitzkeen galdetuz gero, erantzuna baiezkoa zela, baina dokumentu ofizialetan ez zituztela oraindik irizpide horiek eguneratu.

LETRA TXIKIA

Gertaturikoa argitara atera ostean, Gotzone Sagardui Osasun sailburuak esan zuen herrien arteko joan-etorriak debekatzen zituen dekretuko "letra txikia" interpretatzeko orduan irizpide ezberdinak egon bazitezkeen, testuaren erredakzioa berrikusi beharko zela. "Ez gaude ados [Etxeberriak] arauaz egin duen interpretazioarekin, eta, horregatik, kargutik kenduko dugu zuzendari hori".

LABIk handik egun gutxira egindako bileran, helburu sozial eta ekonomikoengatik herritarrak ondoko herrira joatea baimendu zuen.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Bigarren mailako errepideak



ARITZ GALARRAGA

Kotxe-kideak nazkatuta dauzkat, baina, leku beretik maiz pasatzeak erabat aspertzen binau, atsegin dut autoarekin errepide berriak probatzea, bigarren mailakoak, gida-bideetatik kanpo doazenak. Merezi du: gehienetan ez dira hamar, hogeita hamar minutu baino gehiago izaten; galera oso da txikia, irabazien aldean. Villanueva de Sigenan sartu ginen azken bidaian, kotxe-kide batek gosaria kanporatu baino lehen –desbideratzeko edozein aitzakia da ona–. Miguel Servet zenaren jaioterrian.

Izena ezaguna nuen, Alfonso Sastrek idatzi zionetik *Flores rojas para Miguel Servet*, eleberri bat, fikziorik gabekoa –pixka bat Jon Etxaidek Etxahun Barkoxekoarekin egin zuena–. Eleberri bat, pentsatuko duzue, ez da pertsonaia historiko baten biografia ezagutzeko modurik egokiena. Ez dezagun ahantzi, ordea, nobela batek historia libururik zurrunenak baino hobeki lagun diezagukeela ulertzen giza-esperientzia. Mediku eta teologo izan zen Servet, batez ere, pertsonaia eztabaidatu, sineste sendoko, akaso ausartegia. Batzuek aitortzen diote nafar herritartasuna, Tuterako sinatu baitzuen inoiz, baina gehiago dirudi jazarleengandik ihes egiteko amarrua. Odol zirkulazioaren zirkuitua deskribatu zuen lehena; Elizaren antolaketan, erreformatzaile baino irauli aldekoa, katoliko zein protestanteentzat nahasgarri. Jaso zuen akusazioa: Hirutasun Santua ukatzea, Kristoren jainkotasuna, eta panteista zela. 42 urte zituen 1553an, sutan hil zutenean Genevan. Kalbinoren aginduz. "Pertsona bat hiltzea ez da doktrina bat defendatzea; pertsona bat hiltzea da", idatzi zuen Castellionek.

Hondarribia-Bartzelona korridorean, maizegi ikusi izan dut Aragoi tramite bat bezala, are gauza gogaikarri bat; existituko ez balitz hobeto. Bigarren mailako errepideekin ausartzegatik, al-diz, ezagutu ditugu hobeki Serveti buruzkoak. Autopistatik joan izan bagina sekula ezagutuko ez genituzkeen txikikeriak. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



"EPIDEMIOLOGOAK IKASTAROTXO BAT EGIN DUTEN FAMILIAKO MEDIKUAK DIRA"

LUIS ANGEL GARRIDO, EPAILEA

Gune gorrietako ostalaritza berrir irekitzea baimendu duen EAEko Auzitegi Nagusiko Aretoaren presidenteak zeresana eman du aurreko astean, egindako hainbat adierazpenengatik. Besteak beste, Radio Popularren esan zuen epidemiologia ez dagoela "dirudien bezain aurreratua". "Orain esaten ari dira: birusaren transmisioa jaisteko, gera zaitez etxean, ez hitz egin inorekin, ez joan kultur ikuskizunetara... Hori bazekiten Erdi Aroan ere!".

RADIO POPULAR 2021/02/08



Ez baimendu despidoak



JUAN MARI ARREGI

Euskal Herrian zehar langileen eta herritarren manifestazio eta mobilizazio ugari izaten ari da, enpresa pribatuetako enpleguari eusteko. Sektore publikoan ere, osasunean eta hezkuntzan bereziki, enplegu prekarioa duintzeko mobilizatzen jarraitzen dute, 40.000 pertsona baino gehiagori eragiten baitie egoera horrek.

Sektore pribatuan, kaltetuen kopuruagatik nabarmendu ditzakegu Tubacex, Aernova, M. Torres, ITP-Aero Castings eta beste batzuk. Sektore aeronautikoak ere eragin handia du Ipar Euskal Herrian, 4.000 pertsonak egiten baitute lan alor horretan. Ezin dugu ahaztu enpresa horien inguruan enpresa txiki gehiago ari direla azpikontraturik hornitzaile lanetan. Ehunka langile kaleratu nahi dituzte, eta kontratua desegiteko espedienteak ezarri nahi dizkiete. Gainera, xantaiak eginez, soldatak eta osagarriak murrizten saiatzen ari dira. Koadroa osatzeko: gogoratu enpresa horietako askok hainbat unetan jaso dutela diru publikoa.

Gauzak horrela, EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko administrazioek ezin dute beste inora begiratu. Beren esku dago espediente horiek baztertzea. Pandemiak areagotutako krisia, sektore eta enpresa guztiei eragiten ari dena, ez da egiturazkoa. Egoera koiunturalak dira, eta ekoizpen-sistema berregokitzea eskatzen dute. Krisi koiuntural honek irauten duen bitartean, enpresek badituzte beste mekanismo batzuk kontratuak deuseztatzea eta soldatak murriztea eskatzen ez dutenak. Eta badakite, administrazio publikoek ere badakitenez.

Are gehiago, diru publikoa jaso duten enpresak gertutik kontrolatu beharko lirake, xantaiak, itxierak eta deslokalizazioak saihesteko. Kapitalak dena du jokoan. Orain pandemia da aitzakia eta bihar beste aitzakia batzuk izango dira. ●



Pobreziaz erabat deskonektaturik

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Baiona, 18:00etatik goiti, bakar batzuk karrikan: txakurdunak, desobediente batzuk, eta hirurogei bat urteko emakumea. Azken hau, esku-zaku zabal garbia besazpian, itxuraz egunaz Espainiako karrika honetan berean dendaz denda kontsumitzen aritzen ahalko litzatekeenarena. Baina, dendak ez, karrikako zakarrontziak ditu miatzen, sabela betetzeko zeozer atzemateko esperantzarekin. Inoiz ez nuen ikusia, eta irudikatu dut COVID-19ak eragin krisi sozialaren biktima bat izan zitekeela: zeukan lan prekarioa galdurik, edo laguntza sozialak bukatu-rik, egunetik biharamunera supermerkatua edo kaleko fruitu-denda desertatu behar izan duena. Pôle Emploi-n lanean dabilen ezagun batek kontatu berri dit segitzen dituen ehun bat lan bilatzaileen artean hamar inguru direla karrikan bizi –COVID-19 garaia aitzin bakarra zuela zehazten zidan, kezkatu-rik-. Hortan gara: milaka bizi kolpatzen ditu pobrezia bortitzak –iaz hamar milioi biziren langa gainditu zuen 67 milioi laguneko Frantzian-. Oinak lurrean ditugunok, gutiago ala gehiago, irudika dezakegu errealitate hau.

Baina piramidearen puntatik, gure biziak bideratzen dabiltzan agintariekin ez dute horren berri. François Bayrou politikari bearnesez eguna du Frantziako Planaren Goi-Komisarioa, tartean erronka sozial eta ekonomikoei buruz gobernu kontseilatzen dabilena. “Niretzat, hilabeteen 4.000 euro irabazten dituen klase ertainekoa da; 4.000 euroko errenta jasotzean ez gara aberats” erantzun berri dio RTL telebistako kazetariari. Kokatzeko: %15ak du Frantzian 3.000 euro baino gehiago irabazten, %30ak 1.500 euro baino gutxiago irabazten ditu eta justu %8ak du 4.000 euro horiek baino gehiago jasotzen hilabeteen. 2016an Jean-François Copé politikariak –Aurrekontuen ministeritzako zein Barne ministeritzako ordezkari izandakoak– erantzun “txokolatina 10-15 zentimo balio ditu” esaldiaren gustu garrantz bera du Bayrourenak.

Piramide politikoan gora egin arau, geroz eta deskonektatuagoak dira. Aldi berean, Frantziako aberatsen esfera hermetikotik urtero bilioiak dira zerga ihesean galtzen. Errealitate honetaz maleruski, ez dira hain deskonektatuak. ●

Independentismoa ezkererantz indartu da

JESUS RODRIGUEZ / LA DIRECTA

ERCk *sorpasso* egin dio Junts per Catalunya, eta Generalitateko presidente izateko hautagai izango dela iragarri du, eserlekuak bikoizten dituen CUPen eta En Comú-ren babesa jasotzeko. Ciudadans amildu egin da eta Voxek ordezkatzeko du hamaika eserlekurekin. Illa efektuak boto unionistaren gehiengoa jaso du, baina gobernatzeko aukerarik gabe.

014-k bi ezaugarri nagusi izan ditu: abstentzioa eta gehiengo independentista ezkererantz biratzea. Parte-hartzea 2017ko abenduaren 21eko hauteskundeetako -155. artikulua indarrean zela- baino hogeita puntu beherago jarri da. Desafekzio aktibo horrek edo pandemiaren beldurra indar handiagoz eragin die alderdi unionista edo federalistei independentistek baino. Bi datuk bermatzen dute: independentismoak lehen aldiz botoen %50 lortu du -%50,7 PDeCATen 76.000 botoak gehituz gero, parlamentutik kanpo geratu dira-; eta diputatu independentistak 70etik 74ra pasatu dira, CUPek izandako jauziari esker, bost eserleku berri lortuta.

Ia alderdi guztiek boto kopuru handia galdu dute, baina kasurik odoltsuena Ciudadansena da, 36 eserlekutik 6ra pasa eta milioi bat boto-emaile galdu ditu. PSCK eta Voxek haien herentzia jaso dute, Salvador Illa alderdiaren kasuan 16 diputatu gehiagorekin -33 guztira, baina ez dute gobernatzeko aukera aritmetikorik- eta eskuin muturra hemiziklora indarrez sartu da. JxCat-ek 400.000 boto-emaile galdu ditu eta ERCk 334.000. CUPek ia berdindu ditu duela hiru urte lortutako 190.000 botoak, baina ordezkaritza bikoiztu du. En Comú Podemek zortzi eserlekuei eutsi die, baina 133.000 boto-emaile galduz.

Oriol Junqueras ERCko presidentek hauteskunde gaueko agerraldian "azken 80 urteetan lehen aldiz ERCk Generalitateko presidentetza berriz hartuko duela" adierazi zuen, "gera, diktadura eta erregimen autonomikoa tarteko, 80 urteko



Pere Aragonés (ERC), Dolors Sabater (CUP), Laura Borrás (Junts) eta Salvador Illa (PSC).

bazterketari amaiera eman diogu". Pere Aragonések nabarmendu zuenez, "lehen aldiz botoen %50 gainditu dugu eta etapa berri bati ekingo diogu, preso politikoaren askatasuna eta erbesteari itzulera lortzeko. Erreferenduma nahi dugu, errepresiorik gabe". Eta ingelesez mezu bat bidali zuen *sit & talk* leloarekin. "Ez gara diputatu independentistekin konformatzen, diputatu soberanistak batu nahi ditugu". Argi eta garbi En Comúko jendea zuzendutako mezua.

Jessica Albiachek (En Comú Podem) ezkerreko biratzearen ideia ere azpimarratu zuen, baina begirada PSCKn jarrita eta CUPen hautagaitza aipatu gabe: "Ezkerreko gobernu behar dugu eta Illa eta Aragonés jaunei deituko diet mahaian esertzeko eta betorik gabeko ezkerreko gobernu zabala eraikitzeko".

Dolors Sabater CUPeko zerrendaburua emaitzekin pozik agertu zen eta aipatu zuen "eskuin muturra Kataluniako Parlamentuan inoiz imajinatuko ez genukeen indarrarekin sartu izana larria" dela. Eta gaineratu zuen: "Zer egingo dugun eta nola baldintzatuko dugun galde-

tzen diguzue, eta guk kanpainan esandakoa esaten jarraituko dugu. Hemendik dei egiten diegu sindikatuari, erakundeei eta mugimendu sozialei: adostasun handiekin konprometitzen gara. Kataluniako jendea ekin da bi gauzatan: autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen eta ezkererantz joaten".

UNIONISMOA, GOBERNATZEKO AUKERARIK GABE

Salvador Illa Kataluniako eta Espainiako Estatuko biztanleei zuzendu zitzaion, Inés Arrimadasek 2017ko hauteskunde gauean lortutako garaipenaren diskurtsoaren antzera: "Kataluniak gizalegezko eta heldutasunezko lezioa eman du gaur. Gure hautagaitzak boto kopuruari dagokionez argi eta garbi irabazi du eta horrek esan nahi du orrialde berri bat idazteko orria pasatzea. Berrito entzun eta berrito elkartu. Betiko Katalunia itzuli da, inoiz joan ez den Katalunia. Gaur esango dizuet inbestidurara aurkeztuko naizela". Aritmetika argia da eta ez dio Generalitateko presidente izateko aukerarik ematen. ●

AEB-ETAN, AMAZON-EN BAITAKO LEHEN LANGILE SINDIKATUA SORTZEKO AUKERA BIDEAN DUTE

800.000 langilerekin, AEBetako bigarren enplegatzaile handiena da Amazon multinazionala. Zuzendaritzaren joera antisindikalistak bidea oztopatzen diela, langileak ez dira ordea sindikatu baten baitan antolatuak. Baina COVID-19aren testuinguruak eragindako lan karga eta lan baldintza kaskarren eraginez, egoera irauli eta sindikatu bat sortzeko bidea ireki dute AEBetako hego ekialdeko Bessemergo lantokikoek. Sindikatuaren sorrerari buruzko bozketa abian da, eta baietzak irabaziz gero aurrekari garrantzitsua litzateke, Amazonen beste lantokietan ere antolaketa kolektiborako akuilu izan daitekeena.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Baliteke COVID-19 izurriteak ondorio pozgarri bat behintzat ekartzea: AEBetako hego ekialdeko Bessemer hiriko Amazonen biltegiko langileek sindikatzeko bidea irekirik dute, eta lortuz gero, multinazional honen baitako AEBetako lehen sindikatu litzateke. Hori horrela, Jeff Bezos Amazonen buruaren antisindikalismo amorratuaren baitan agerturiko arrakala berri bat litzateke.

Biltegi berria da Bessemerrekoa, iazko martxoan irekitakoa. Garai berean agerturiko koronabirusaren eraginez eskaerak azkarki emendaturik –2020ko urtariletik apirilera 24 bilioi dolarrez emendatu zen Bezosen aberastasuna, negozio-zifra %40 emendatuz– laster sentitu zuten lan kargaren emendioa bertako langileek, baita oinarritzeko eskubideen alde kolektiboki antolatzearen premia. Hain zuzen, komertzioaren sektoreari dagokionez, sindikatutako inguruko enpresetan errazagoa zitzaien oinarritzeko eskubideen errespetua exijitzea: lanaldian maskara zein bestelako babes neurrien eskuratzeta. “Orduz geroztik, geroz eta langile gehiagok dute ikusten ahots kolektiboaren garrantzia”, dio *The New York Times*-i eskualde hartan militatzen dabilen Stuart Appelbaum RWDSU sindikatuko presidentea.

Amazonen bezeroentzat izako urriaren 13 eta 14an finkaturiko Prime Day beherapen egunek eskaera ezin jasana bilakaturik, luzatu zioten sindikatu bat sortzeko eskaera National Labor Relations Board agentzia federalari. Abendu buka-

ran, biltegiko 2.000 langilek egitura baten sorrerari buruzko bozketa eskaturik, antolatzeko “nahiko interes” bazegoela ondorioztatu zuen Lan Harremanen Batzar nazionalak. Bozketa abiaturik, martxoaren 29a arte iraunen du sindikatuaren sorrerari buruzko iritzia emateko aukerak.

Orotara, 5.800 langile batzen dira Bessemergo biltegian, eta hauen gain 800.000 dira AEBetan, Amazonentzat lanean ari; AEBetako bigarren enplegatzaile handiena denean –Walt-Mart supermerkatu erraldoia delarik lehena, hau ere bere antisindikalismoarentzat ezagutua–. Bistan da, sindikaturik ez izanki, hitzarmen kolektiborik ez dute enplegatzailearen eta enplegatuen artean. Nahiz eta banaturiko “soldata handiak” goraipatu zuzendaritzak, horretaz aparte, ez dute hitzarmen kolektiboek dakarten langile eskubideen bermerik. “Ordua 25 dolar pagatuz gero ere, zer balio du horrek aldi berean ez banauzue ongi tratatzen?” oharra irakurri daiteke *The New York Times*-en artikuluan.

Bessemerren sindikatu bat osatzeak ez luke AEBetako beste biltegiarentzat balioko, baina sindikatzeko ideia errotzen lagundu dezakeela argi dute aldekoek. Horretarako dira AEBetako txoko guztietatik Alabamako lantoki horretara begira. Horren lekuko Bernie Sanders demokrata ezagunak sare sozialetan zabalduko mezua: “Antisindikala den estatutuan daude, indar antisindikal gogorrei aurre egin beharra dute, baina argi geratu dadila: haien garaipena

AEBetako langile guztien onerako izango da. Haien aldean izateaz harro”.

ZUZENDARITZA EZETZAREN ALDEKO PRESIOA BIDERATZEN DABIL

Horrela da: sindikatuaren sorrera saihesteko makineria antolatu bati aurre egin beharra daukate langile militanteek. “Izurrite egoeraz hitz egiteko bilerarik ez dugu; haatik, bilkura behartuak ditugu zeinetan entzun behar izaten dugun zer heinetaraino diren sindikatuak guretzat eta enpresarentzat txarrak”, dio Bessemergo biltegiko langile batek AFP-ko kazetariari.

Zuzendaritzak ere badaki baietzak irabaziz gero, ondoko biltegiak ere zabaltzen ahalko litzatekeela kolektiboki ekiditeko gogoia. Horrek dakar ezetzaren alde eramandako lana: posta bidezko bozketa ezeztatzeko auzibidea –azkenean, auzitegiak atzera botatakoa–; sindikatuen kontrako propaganda eta indibidualismoaren aldeko mezu argia bideratzen duen www.doitwithoutdues.com webgunearen sorrera; aldeko kanpaina eramaten dabiltzanen kontrako presioak, eta abar. Kotizazioen kontrako mezu sinplista plazaratzen dabil: kotizatuz dirua galduko duzu, hobe diru hau aurreztu eta liburuak zein opariak erosteko baliatzea. “Amazonen sms mezuak bidaltzen dizkit, langileon pausa getetan ere zabalduz ditu ezetzaren aldeko mezuak, komunetaraino hedatzen dizkigu! Erabat neurritz kanpokoa da bideraturiko propaganda” dio anoni-



MOBILIZATURIK.

ZUZENDARITZAREN PRESIOEI AURRE EGINEZ, SINDIKATUA SORTZEAREN ALDEKO MOBILIZAZIOA BIDERATZEN DABILTZA HAINBAT LANGILE. ARGAZKIA: S. KEITH, GETTY IMAGES

motasuna atxiki nahi duen langile batek pareko kazetariari.

Mundu mailan 1,2 milioi langile dira Amazonentzat ari –COVID-19ak inarrositako 2020 urtean %50 emendatu zen kopurua, batzaz beste egunero 1.400 langile berri zituen kontratatatu, *developpez.com* gunearen arabera–, eta AEBetan ez bezala, herri batzuetan sindikaturik daude langileak. “Amazonen politika antisindikalistari ez” zutabea plazaratu zuten iazko urrian *Libération* egunkarian hogeitau bat eurodiputatuk. “Pandemia hasi zenetik, Amazonek izan dituen irabazien hazkunde esponentzialak ez dizu (Jeff Bezos mintzo dira) baimentzen legez babesturiko oinarritzko printzipioen zangopilatzea”, irakurri daiteke gutunean. Hain zuzen, orduan jakin zen Amazonek “informazio analistak” enplegatu nahi zituela, hainbat “mehatxu”

saihesteko asmoz –tartean, “terroristak”, “Amazonetikiko kritiko diren talde politikoak” baita “langile erakundeak” ere–.

PINKERTON ESPIOI AGENTZIA EZAGUNAREKIN ELKARLANEAN

Sindikatuak jomugan ditu aspaldian 187 bilioi dolarreko aberastasuna daukanak. XIX. mende bukaeraz geroztik langileen eskubideen aldeko borroka zapuzteko lanetan berezitutako Pinkerton National Detective Agency espioi agentziari dei egin izan dio ere –inolako konplexurik gabe–. Espioi horiek genituen 1886ko Haymarket sarraskiaren oinarrian, orduz geroztik maiatzaren lehen guztiz oroiturikoa –Pinkertonen espioiek grebalariei mugimendua infiltratu eta liskar odoltsua probokatu izana salatu zuten ordungo sindikalistek–. Hainbat manifestari bertan hil edota atxilotu eta heriotz zigorrera

bideratu zituzten Poliziak eta Justiziak.

Hainbat barne-dokumentu eskuraturik, eman zuen espioi kontratatze hauen berri *Motherboard* komunikabideak. Sindikatuen bileren segipena, protestei buruzko datu zehatzen bilketa –nor, non, noiz eta zertan dabilen–, zein Amazonen aurkako ekintzak bideratzen dituzten elkarte jarraipena, legez kontra doazen hainbat ekinbide argira ekarri zituen komunikabideak.

Hori horrela, arrakala inportantea litzateke AEBetako Amazonen baitako lehen sindikatuaren sorrera. Zentzu bereira, urtarrilean Google-ko langileek zuten lehen sindikatu sortu, Alphabet Workers Union izenekoa. Badirudi, langileriaren identitate kolektiboa desagerrarazteko zailtasun geroz eta gehiago ukanen dituztela GAFAMeko (Google, Amazon, Facebook, Apple eta Microsoft) oligarkek. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w



Mohammed Ounasser

AMAZIG ETORKINA



VILLAVESAN NIRE ONDOKO ESERLEKUA BETI HUTSIK EGOTEN DA



16 urte zituela bere herria eta familia utzi eta patera batean sartu zen Europako ametsaren bila. Iruñera iritsi aurretik ere, argi zeukan bere adinkide askok baino gehiago ikasi eta lan egin beharko zuela. Hizkuntza eta lanbideaz gain, hemengo jendearen komunikazio kodea azkar ikasi du berbere gazteak. 2019an Nafarroako Gazteriaren Saria eman zioten, bakarrik etortzen diren gazte etorkinei aitortza gisa.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Nolakoa da zure sorterrria?

Todra 4.000 biztanleko herria da. Eskualdeko iparraldea ezaguna da neguan jende asko joaten delako eskalatzerara. Oso euri gutxi egiten du, baina oso paisaia politak daude.

Zergatik erabaki zenuen handik ateratzea?

Ikasten ari nintzen eta bizimodu normala neraman, baina ikusten nuen han jende askok ez duela lanik aurkitzen ikasketak bukatutakoan. Horregatik esan nion aitari Espainiara joan behar nuela, nire lagun askok egin duten bezala. Nire herritik jende piloa etorri da, 90 gazte gutxienez bai.

Hasieran ez aitzak ez amak ere ez

zuten ni joaterik nahi. Hilabete asko aritu nintzaizen argudioak ematen eta DBH laugarren maila bukatutakoan, aitzak esan zidan berriro ez zidala ezetz esango. Ez zidan joateko esan, baina ez zidan debekatu. Azkenean utzi zidaten.

Bost arreba dituzu. Haiek ez dute etortzeko asmorik?

Ez. Hori pentsaezina da. Marokoko iparraldean badaude etortzeko erabakia hartzen duten neskak, baina nire herrian ez. Ikasketak bukatzen dituztenean ezkontzen dira eta kito.

Zer kontatzen zizuten zu baino lehen etorritako lagunek?

Hasieran pixka bat kostatzen dela hizkuntza ikastea, ikasketak egiteko tokia bilatzea, bizitokia aurkitzea... baina poliki-poliki ikasten baduzu eta ohiturak ere ikasten badituzu aurrera ateratzen zarelara. Nire lagun onenak bi hilabete lehenago egin zuten Bartzelonara eta azaldu zidan dena.

Aurkitu duzu espero zenuena?

Ez. Dena ez. Espero nuen hona iristean ikasteko toki bat aurkitzea eta ikasi nahi nuena aukeratu ahal izatea. Baina ez zen horrela izan. Elektrizitatea ikastera eraman ninduten eta nik mekanika nahi nuen. Egia esan orain asko gustatzen zait, baina hasieran gaizki pasa nuen.

Mohammed Ounasser, Moha

TODRA, MAROKO, 2002



Goizez Elektrizitatea eta elektroniko-lanbide heziketako bigarren maila ikasten ari da Etxabakoitz Eskola Tailerrean. Arratsaldean enpresa batean lan egiten du matxuratzeko diren makinak konpontzen. 16 urterekin iritsi zen Iruñera, bere herria –Todra– eta familia utzi eta Gibraltargo itsasartearen patera batean gurutzatu ondoren. SEI Elkarteko kidea da (Kulturarteko Giza eta Hezikuntzarako Zerbitzua), eta boluntario gisa aritu da. 2019an Nafarroako Gazteriaren Saria jaso zuen.

Nolakoa izan zen bidaia?

Herritik atera eta Tangerrera joan nintzen autobusez. Han hiru egunez egon nintzen zain, kalean lo egiten eta bidaia prest zegoela esan zidatenean dirua eman nion trafikatzailerari. 4.000 euro ordaindu nion dirhametan. Nire aitak lan handia egin behar izan du dirutza hau lortzeko. Azken denboraldi honetan enpresa batean ari zen lanean, baina orain itxi dute COVIDaren egatik, beraz orain ez du lanik egiten eta bizitza osoko aurrezkiak trafikatzailerari eman behar izan genizkion. Bost metroko patera batean 35 pertsona sartu ginen. Tangerretik goizeko laueta atera ginen. Arratsaldeko bostak aldera erreskatatu gintuzten eta La Lineara eraman. Gauean hotz izugarria egiten zuen eta ez genuen ez janik ez urik ere. Oso gogorra izan zen. Zure bizia arriskuan jartzeaz gain, dirutza handia ordaindu behar duzu. Zorionez, gure paterako guztiak bizirik iritsi ginen.

Eta penintsulara iritsitakoan?

Adingabeentzako zentro batera eraman ninduten. Jende piloa zegoen. Lurrean lo egiten genuen. Latzak izan ziren han egon nintzen hiru egunak. Gero Tuteran bizi den nire osaba bati deitu nion eta bila etorri zitzaidan. Astebate egon nintzen haiekin eta gero Iruñera ekarri ninduen. Foruzaingoaren polizia-etxe batera eraman ninduen eta esan genien adingabea nintzela eta ez nuela ezer. Orduan Ilundaingo harriera zentrorara eraman ninduten eta hiru egun beranduago Argarai adingabeentzako zentrorara. Han bi hilabete eman ondoren Barañaingo pisu batera bidali ninduten beste hiru mutilekin, apirilean 18 urte bete nituen arte. Orduan babes guztia bukatu zen eta nire kabuz bilatu behar izan nuen bizitokia. Orain pisu partekatu bateko gela batean nago.

Orain erakundearen babesik ez duzu?

Hala da. Programatik kanpo gelditzen zara 18 urte beteta. Orain nire kasa bizi naiz. Harremanak ditut zerbitzu sozialekin eta SEI elkartearekin. As-teburuko ekintzetan eta ateraldietan

hartzeko dut parte eta lanean hasi aurretik boluntario gisa aritzen nintzen beste gazteei laguntzeko, baina orain ez dut denborarik. Hezitzaileekin oso harreman ona dut eta deitzen ahal diet. Paperak berritzeko, adibidez, laguntzen didate. Hezitzaileek mesede egiten didate nahi dutelako, haiek ez baitute batere obligaziorik ni laguntzeko.

Aldaketa oso latza da, egun bate-tik besterakoa, eta diru aurrezkiarik ez baduzu oso gaizki pasatzen duzu. Bermatutako errenta eska dezakezu, baina hilabete asko kostatzen zaio iristea.

Eta dokumentazioa?

Ni ezer gabe etorri nintzen eta izugarri kosta zitzaion nire pasaportearen Marokotik bidaltzea. Urte bat eta hilabetea. Hogeia aldiz joan naiz Bilboko Marokoko kontsulatura. Pasaportearen lortutakoan, atzerriko aferen bulegora joan nintzen Atzeritarren Nortasun Zenbakia (AIZ) eskatzera eta sei hilabete beranduago eman zidaten. Urtero berritu behar dut. Zorionez niri hau eman zidaten erresidentzia eta baita lanerako baimenarekin ere, baina ez da ohikoa. Horregatik aurkitu ahal izan dut lana.

Eta hori zer dela eta?

Martxoan koronabirusarengatik aldatu zuten legea eta orduz geroztik ematen dute horrela. Mugak ixtean nekazaritza alorrean, batez ere, behar omen ziren langileak eta horregatik ordurako hemen geunden adingabeei edozein sektoretan lan egiteko baimena ematen hasi zitzaizkigun. Salbuespenezko neurri bat omen da.

Dena den, gaizki antolatuta dago sistema. Enpresa batera lan eske joaten zarenean lanerako baimena eskatzen dizute, baina baimen hori lortzeko, edo berritzeko, enpresa batean urte baterako eta jardunaldi osoko kontratu bat behar duzu. Nola egiten duzu hori? Baimenik gabe ez dago kontraturik eta kontraturik gabe ez dago baimenik. Gorpil zoro bat da.

Ni orain ongi nago. Goizean Lanbide Heziketako bigarren maila egiten ari naiz eta arratsaldean jardunaldi erdiko lana daukat enpresa batean, matxuratzeko diren makinak konpontzen.

GOSEA, BESTE BIRUS HORI

“Pandemia arreta handia jasotzen ari da guztioi eragiten ari zaigulako, baina bada beste birus bat jende gehiago hiltzen ari dena. Gosea du ize-na eta bere txertoa janaria da, baina jendeak gosez hiltzen jarraitzen du. Afrikako gosea eta gaixotasunak Mendebaldeko gizarteetara iristen ez direnez, ezikusiarrena egiten da eta hori latza da”.

Errenta bermatua eskatzea da gazte batzuentzat irtenbide bakarra?

Bai, hala ere orokorrean pentsatzen dugu hori ez dela guretzat. Hori da lanik egin ezin duen familia batentzat, adibidez. Guk lana nahi dugu. Jainkoari esker guk indarra eta lanerako gogoia dugu.

Nire lagun asko egoera zailean daude: erresidentzia baimena badute bai, baina lanekoa ez eta oso gaizki ari dira pasatzen. Jarraitzen dute ikasten, baina askok utzi nahi diote ikasteari. Lana nahi dute eta dirua lortu.

Zer izan da zuretzat Nafarroako Gazteriaren Saria hartzea?

Hasieran ez nuen oso ongi ulertzen. Oso momentu berezia izan zen niretzat eta nire familiarentzat ere bai. Berehala bidali nizkien argazki eta bideo guztiak. Kontent eta harro zeuden. Ni hautatu ninduten baina asko dira eta ni baino hobeak ere bai. Badira aurreiritzi asko etorkin adingabeen inguruan eta horiek ezabatzeko balio dezake sariak.

Baztertua sentitzen zara?

Bai, askotan. Etxeko atarian jendea agurtzen duzunean eta ez dizutenean erantzuten edo villavesan [autobusean] nire ondoko eserlekua beti hutsik egoten denean, adibidez. Jendeak nahiago du zutik egon, zure ondoan eseri baino eta horrek min ematen du. Orain koro-



nabirusarekin baikorrago begira deza-kezu eta pentsatu denok kutsatzearen beldur garelako dela.

MENA edo etorkin adingabearen etiketa latza da?

Ikaragarri. Ematen du lapurtzera, hiltzera eta gauza txar guztiak egitera gatozela, baina gu gure etorkizuna hobetzeko eta gure familiak laguntzeko asmoz etortzen gara.

Desberdina izateak, beste hizkuntza, kolore eta erlijioa edukitzeak susmagarri bihurtzen zaitu eta jendeak baztertu egiten zaitu. Hori nabari da gehiago adin

bateko jendearen artean. Gazteak irekia-goak izaten dira.

Batzuek diote lana kentzera gatozela, baina argi esan behar da guk hartzen ditugula haiek nahi ez dituzten lanak. Guk soilik lana nahi dugu, edozein izanda ere. Dena den, hemen bazaude betidanik eta duela bi hilabete kanpotik etorri den batek lana kentzen badizu, erruduna nor den ez daukat nik oso garbi. Hori ez da normala. Egia da, bestalde, batzuek edozein lan onartzen dutela edozein prezio-tan. Ni ez nago horren alde, baina ulertzen dut batzuek hala jokatzeari, behar handia dutelako.

Honen aurrean zer egin daiteke?

Nik uste dut oso garrantzitsua dela guretzat hemengo ohiturak eta kodeak ikastea, esaterako. Afrika iparraldetik etortzen diren gazte askori, adibidez, hori izugarri kostatzen zaie. Oso serioak dira ezezagunekin. Guri, orokorrean, etxean beti esan izan digute zu baino adinez nagusiagoa den pertsona batekin hizketan ari bazara, besoak gurutzatu behar dituzula bular gainean errespetua adierazteko eta serio begiratu. Horregatik hemengo jendeak askotan pentsatzen du gazte horiek haserre daudela eta ez da hori. Entzuten ari dira, besterik ez. Batzuetan haserre planta horien atzean tristezia edo beste emozio batzuk egoten dira.

Gai hauetaz hitz egiten duzue zuen artean?

Ez. Ikasketez, lanaz... bai, baina gai hauek ez gehiegi, eta garrantzitsua da. Honetaz denborarekin konturatzen zara.

Nolakoa da zure bizimodua? Baduzu lagunik?

Bai, mordoa. Baditut kanpotik etorritako lagunak eta hemengoak ere bai. Oso zaila da hemengoak aurkitzea, baina SEI familia bat bezalakoa da eta haiei esker hemengo jendea ere ezagutze-ko aukera dugu. Eta klaseko lagunak ere baditut. Asteburuan batzuetan gelditzen gara zerbait hartzeko edo buelta bat emateko. Lagun batekin askotan joaten naiz bizikletaz ibiltzera, mendira eta tokiak ezagutzera. Oso paisaia politak daude hemen Nafarroan. SEIrekin bizpahiru aldiz mendira joan ginen pandemia aurretik. Oso baliogarria da guri sentiarazteko jendearen kariñoa eta maitasuna. Ez naiz askotan ibiltzen gauez eta nahiago dut egunez ibiltzea.

Niri kirola ere asko gustatzen zait. Hesietako lasterketan aritu naiz Hiru Herri taldean eta han ere jende asko eza-gutu dut.

Erlijio zalea zara?

Bai. Ez dut alkoholik edaten, ez dut erretzen, ez drogarik hartzen ezta txerri haragirik ere. Alkohola ez zait gustatzen, ez da soilik erlijioarengatik.

Egunean bost aldiz egiten dut otoitz eta ostiraletan Sanduzelaiko meskitara



joaten naiz, denbora dudanean. Aldi bakoitzean 5-10 minutuz aritzen naiz. Egiten dudana da Korana irakurri, keinu batzuk egin, gogoeta eta Alari gauzak eskatu. Dena ongi joan dadin eta nire familia laster ikustea eskatzen diot. Bi urte dira ikusten ez ditudala. Orain pandemiarekin oso zaila da, baina hobera eginez gero udan joatea gustatuko litzaidake.

Bitartean nolako harremanak dituzu familiarekin?

Bideo deiak, telefonoz... hiruzpalau aldiz astean.

Gauza txarrak ere kontatzen dizkiezue?

Kontatzen ditugu batez ere gauza onak. Txarrei buruz ere hitz egiten dugu, baina garrantzia kenduz, pasako direla esanez.

Hala, hango lagun gazteei gaizki gaudela esaten badiegu, batzuek pentsatzen dute hori esaten duzula ez duzulako nahi haiek etortzea.

Nolakoak zarete berbereak?

Oso harro gaude berbereak izateagatik. Kultura oso desberdina da. Baditugu gure bandera eta hizkuntza propioa. Eskolan arabieraz ikasten nuen eta fran-

tsesa. Amak ez daki arabiera. Inork ez daki irakurtzen edo idazten amazigez. Inoiz ez dugu ikasi. Berbereak gehien-go gara baina gobernua arabiarra da eta ez gaituzte errespetatzen. Urtarri-laren 13an berbereen urte berria izan zen, baina gobernuak debekatu zituen ospakizun guztiak.

Nolako etorkizuna nahi duzu?

Momentuz hemen nahi nuke, Iruñean. Ikasten jarraitu eta aldi berean lan egin. Orain Transpirenaica Social Solidaria elkartearekin proiektu bat egiten ari gara gazte etorkinak eta adineko pertsonak elkarrekin bizitzeko.

Hiru mutilek eta hezitzaile batek Etor-kizunerako Erronka izeneko programan parte hartu genuen estatu mailan eta 25 talderen artean gure proiektuak irabazi zuen. Orain berriki egitasmoa Nafarroako Gobernuan aurkeztu dugu eta haien erantzunaren zain gaude.

Niri asko gustatuko litzaidake adineko pertsona batekin bizitzea eta laguntzea.

Gainera bada jende asko pisua edo logela alokatu nahi ez diguna. Orain bi lagun eta hirurok ari gara pisu bila elkarrekin bizitzeko eta inork ez digu alokatu nahi. Bizitokiaren gaia oso konplikatu da.

Nola ikusten dituzu hemengo gazteak?

Pena ematen dit ikustea batzuek ez dutela gaztaroa aprobetxatzen ikasketak egiteko eta etorkizun hobe bat lortzeko. Gurasoek uzten badiete nahi dutena egiten eta dirua ematen badiete horrela bizitzeko, normala da halako gauzak gertatzea. Etorkizunari aurre egin behar zaio. Nire ustez ez da ezkutatu behar gurasoen edo familiaren atzean. Atera behar da eta aurpegia eman. Pentsatu behar da zure gurasoak ez direla zurekin egongo beti eta iritsiko dela bakarrik moldatu beharko duzun eguna. Dirua irabazi, lan egin eta bizi beharko duzu zure kabuz, inoren laguntzarik gabe. Horregatik eskarmentua hartzen joan behar da.

Eta euskara ikasteko asmorik bai?

Bai! Amazig, arabiera eta frantsesa badakizkit eta orain euskara ikastea gustatuko litzaidake. Izugarri gustatzen zait soinua eta nola hitz egiten duzun. Hona etorri aurretik ez nekien euskara existitzen zenik ere. Nire lehen harremana hizkuntzarekin izan zen Lorea nire hezitzailearen bidez, bera ere ikasten ari delako. ●



Kosta ahala kosta



DAVID BOU
LA DIRECTA-KO KAZETARIA

Lerro hauek argitaratzen direnerako, Kataluniako hauteskunde autonomikoak amaituta egongo dira. Emaizak lehen aldiz ekarriko du argiki eskuin muturrekoa den alderdi bat sartzea hemizikloan, nahiz eta urte hauetan Vox alderdiko hautesle asko Alderdi Popularrak eta Ciudadanosek ordezkatu duten, boto aldaketa aztertzen duten proiektzio demoskopiko guztien arabera.

Ultraeskuinaren hauteskunde kanpaina bi zutabetan oinarritu da azken asteetan. Lehenik eta behin, Ciudadanosetik zetorren hiri handietako boto espainolista bilatu dute, berezikiartzelona metropoli-eremuan. Jarraian, biztanle migratzaile asko duten hiri ertainetako hautesleak erakartzea izan du helburu: Manresa, Salt edo Vic kasu, non Josep Anglada arrazistaren Plataforma per Catalunya desagertuak zinegotzi ugari lortu zituen urtetan.

Hasiera-hasieratik kanpainako ekitaldi guztiek gaitzespen kontzentrazioak eragin dituzte. Mobilizazioak areagotu egin dira bisita probokatzailak egin dituztenean, batez ere gorroto diskurtsoen biktima gehien bizi diren herrietan: pertsona arrazializatuak eta independentistak, nagusiki. Aurreikus zitekeen bezala, protesten intentsitateak gora egin du, eta Esquadra Mossoek ardura handiz babestu dituzte ultraeskuindarrak; funtzionario publikoak baino gehiago segurtasun pribatuko zerbitzua ziruditen.

Bidegabea iruditzen
zait manifestari
antifaxistei leporatzea
eskuin muturrari
botoak ematea, zenbait
posizio aurrerakoietatik
adierazi dutenez

Ohiko estrategia biktimistaren alde egin du Voxek gertaera horien ondoren. Ildo komunikatiboa indartu du mitin istilutsuen bideoen bidez, eta oso erosoa agertu da aurrez pentsatutako eta zehaztasunez aztertutako agertokian. Hori dela eta, eztabaida errepikakor bat agertu da berriro: adierazpenak egin behar dira beren ekintzei erantzuteko, ala inteligenteagoa da horiei jaramonik ez egitea?

Bere estrategia desaktibatuko duen kontakizuna eraikitzeke gai ez garela izaten ari pentsatuta ere, zentzugabea eta bidegabea iruditzen zait manifestari antifaxistei leporatzea eskuin muturrari botoak ematea, zenbait posizio aurrerakoietatik adierazi dutenez. Indar politiko legitimo gisa onartu eta normalizatzea da benetan haziarazten di-

tuena. Beste aukera demokratiko bat gehiago balira bezala. Nahiz eta edozein pertsonari dagozkion giza eskubideen ukapenaren bandera jasotzen duten, eta gutxiengo sozialen eta kolektibo zaurgarrien aurka intolerantziaraz aritzen diren.

Kanpaina honetan, Hauteskunde Batzordeak telebista eta irrati publikoei inposatu die Voxi ahotsa ematea, azken hauteskunde orokorretan botoen %5 baino gehiago lortzeagatik. Hedabide pribatu askok bide bera aukeratu du, behartuta egon gabe. Hedabide batzuetako batzorde profesionalek kritikatu egin dute neurria, baina inork ez du desobeditu, eta hainbat astetan bozgorailua izan dute telebista eta irratiaren, baita itxi nahiko lituzketela harrotasunez aldarrikatzen duten horietan ere.

Alderdi gehienek estrategia, baita hauteskunde eztabaidetan ere, jaramonik ez egitea eta beren esanei ez erantzutea izan da, protagonismoa ez emateko argudioarekin. Audientzia handieneko ordutegian gezurrak eta datu faltsuak zabaltzeko baliatu dute aukera Voxeko kideek, inork gezurtatu gabe. Eta ez, argi izan dezagun hori ez dela nahikoa orain. Antonio Gramscik zioen bezala "Formatu zaitezte, gure adimen guztia behar dugulako. Hunkitu zaitezte, gure gogoberotasun guztia behar dugulako. Antolatu zaitezte, gure indar guztia behar dugulako". Ez dago galtzeko denborarik. ●

Betaurreko lurrunduen halabeharra



MAIALEN BERASATEGI CATALÁN
ITZULTZAILEA



PAULA ESTÉVEZ

Arauk haustea ez da beti gaiztakeria. Eta, kamarada mai-teok, arauak haustea ez da beti transgresioa. Baina literatura ba omen da araua haustea. Logikaren araua, ohizkoarena, halabeharrarena hautsiz pizten ei da literatura neurri handi batean, harik eta, jakina, araua errepikaren errepikaz gehitxotan hautsi eta arau-haustea literatura ez baizik arau bihurtzen den arte, edo topiko, edo klixe, edo kolokazio ihartu (edo literatura txar, lerrake baten batek). Arau-hauste izanagatik, orde, literaturak baditu bere norma eta zedarrak ere. Besteak beste egiantzekotasunaren legearekin ezkontzera behartu ohi da narratiba, esaterako.

Eztula baino zaharragoa da kontua: egiatan gertatzen diren zenbait gauza (bitxiaren bitxiak, apartekoaren apartekoaz, kasualitatearen kasualitateaz segituan hurbilekoei kontatu nahi izaten dizkiegun pasadizo edo are aro surrealista batzuk) errealistegiak izaten dira ia, errealtatearenegiak ia, adibidez prosa narratiboan egiantzekoak suertatzeko. Lan eta maisutasun eskerga eta oro har baliabide material gutxienekoak eta zorte pixka bat ere behar izaten dira gauza errealegi horiek literaturara eta

artera ekarri eta funtziona dezaten. Zorionez, bada horretarako kapazik.

“Arteak aukeratuko lukeen amaiera ez du beti bizitzak hautatzen, gero bizitzak arteak kontatzen diona sinesten duen arren. Hori da izan, artearen akabuko garaipena: munduak harekiko duen sinestetasuna”. Harkaitz Canoren *Fakirraren ahotsa*-ren narratzailearen hitzak, horra. Galdera pertinentea da, beraz, zertarako ekartzen duten orduan idazleek ekartzen dutena (jakina baita idazleek oro har ekarri egiten dutela, asmatu baino gehiago): zer eta nola gertatu den jakiteko? Ala modu jakin batean gertatu dela sinetsi eta sinetsarazteko? Ala sinetsi eta sinetsarazteko ezen literaturak kontatzen duen zera desiragarriago edo diferenteago edo ameskarago horren isla dela bizitza, eta ez literatura bizitzaren isla desiragarriago edo diferenteago edo ameskaragoa?

“Konturatu zara [...] amets bat kontatzen denean, aldatu egiten direla gauzak, ezin direla amestu diren bezala kontatu, kontatzeko ere lar direla, ezin direla narrazio natural batean eman?”. Unai Elorriagaren *Iturria*-ren protagonistetako baten hitzak, horra. Eta memoriak beti du kutsu ameskara lauso hori; bestela, ez litzateke hain

auzi inportantea eta zaila, ez memoria bera, ez haren errelato edo kontakizun ditzosozkoa. Arazoa da ametsak beste mundu bat diren bezala iragana ere beste mundu bat dela, eta sekula ezin dela mundu horren barrutik mundua xuxen kontatu. Barruegitik, hurbilegitik, ezin da. Hipermetropia esaten diote oftalmologoei. Gertatua nolabait kontatzeko, sailkatzeko eta balioesteko, perspektiba behar da, distantzia eta denbora alegia, baina, perspektiba bat ontzeko bide horretan, galdu egin ohi dira hain justu xehetasunak, izandako hura izan zena bihurtu zuten markak; hots, lausotu egiten da nolakoa izan ote zen kontagai dugun hori: euforia-antsietateen aldi bat ala poz-tristurena, patata-azalena ala odolkiarena ala borondatezko barauarena, aisiarena ala deskantsuarena, sutondoarena ala erresilientziarena, diskurtsoena ala berriketarena... Historiari ezinbestean erortzen zaizkio poltsiko-zulotik istorioak. Besteak beste horiek xorro-xorro biltzeko daukagu literatura, ahozko eta idatzizko arau-hauste hori.

Biharamunaren leiar lurrunduetatik begiratzuz mamituko dute historialariek ez ezik istoriogileek ere gure (kuts)aldi hauen memoria. ●

Arnas-guneak itolarrian!



IÑAKI MURUA
BERTSOLARIA

Gabiri eta antzeko herriak, herritarrak denok euskara jakin eta egunerokoan erabiltzeko ohitura dugunok, arnas-guneak gara gure hizkuntza-erentzat. Izan ere, nahiz eta gerratean alde batean ibili zein bestean, etxe denetan egiten zen euskaraz eta alde batekoak diktadoreak isiltzen edo urruntzen zituen arren, herritarrek natural eutsi zioten beren arteko ohiko eta betiko komunikazio hizkuntzari. Baina, herriko eskola bakarra D ereduan eta, inork euskaraz egitea galarazten ez digun arren, oraindik arnas-gunea den honetan larri eta ez tul goaz, *leku guztietatik ageri* dion esaerarentzat, arnas bila!

UEMAk antolatutako ekitaldi batean, Baztango udal ordezkariak zioen: “Askotariko pentsaera eta izaerek osatutako jendarte baten emaitza gara gu”. Kolpean, oroitu nuen duela urte batzuk Irurita inguruko gazte bati entzuna: “Gure aita, betiko UPNkoa zuan, baina gure etxean erdaraz ari baginen eraman ezinik egoten huen eta kaskarrekoen bat ere jasoa gaituk hori dela eta”. Orduan harritu nintzen gazte hark oparitu zidan egoeraren aurrean, eta gorago aipatu ekitaldi horretan harritu ninduen Galesen eta Irlandan bertako hizkuntza daktaren kopurua, denera, hogeita hamar mila omen direla entzuteak.

Eragina zerk duen ama hizkuntza utzi eta beste batean aritzeko, auskalo zerk edo zertzuk duten baina, jakin berria dut haur gabiriarrek, “no” esaten lehenago ikasten dutela “ez” esaten baino eta guk aite esan dugunean aita esaten dutela. Ama esango dute denek, baldin bait ere!

Aipatu UEMAko ekitaldi interesgarrian, Sakanako esperientzia ikusi eta eskarmentutik ikasi genuen, gai guztietarako ekonomia dela zutabe eta, beti, denen parte hartze eta onespenerarekin egin behar dela aurrera, inor alboratu gabe, denak proiekturako inplikaturik. Gu, berriz, artistak gara zatiak zatitzen!

Beste batzuen artean arkitektura eta eraikitze lanei buruzko adibidea ere esan gura izango da. Eta diot, arau subsidiarioak zehaztu al ditzaiegu herri txikiotik? Giza legea ote, lur sail bat berea duelako, dirua egitea besterik axola ez dion bati saltzea, herriaren etorkizuna baldintzatuz? Herriko gazteek hartu behar lukete ekimena eta udalak aukerak jarri gazteei jaioterrian bizitzeko. Geroan arnas-gune izango bagara, haurrak beharrezko baititugu, ez ordea urte batean hogeita eta hurrengoan bi, gure azpiegiturak eusteko jarraioan baik. Azken muturreraino planifikatu beharra dugu herri txikiotik eta gure hizkuntzaren osasuna, handiagoen erritmoan beti itolarrian ibil ez gaiten eta hala ere... ●

Gure azenarioak



UXUE APAOLAZA
LARREA

Erantzukizun indibidualari buruzko mezuak entzuten ari gara. Eta inori ez zaio gustatzen, dirudienek, bere txikitasun indibiduala onartzea, guk ere makila erraz astintzen baitugu. Nik badiotut iritzi batzuk eta jokamolde sorta bat pandemia honi dagokionez, eta ez nago ados beste iritzi eta jokamolde batzuekin. Baina oso hasieran erabaki nuen ingurukoei makiladarik ez ematea, maskara diadematzat erabiliko balute ere, beren kezka nagusia igandeko mendi-buelta ezin egitea balitz ere.

Ez da axolagabekeria. Badiotut ospitalean bata urdina eta arrosa soinean lanean ari diren senideak, deskonektatzeko aukerarik gabe, pandemiaren ondorioak

artatzen pasatzen dutelako eguna; eta ospitalera iristen diren ondorio guztiak ez dira birusdunak. Langile horiek, eta beste asko, bakarrik utzi ditugu ondokoari kontuak eskatzen lanpetuta. Azenarioak erakutsi dizkigute, eta makiladak eman, gure erantzukizunaren handia azpimarratu. Makila daukana da bete ezinezkoak eskatzen ari zaiguna, eta makiladak jasotzen dituenaren aldean gaude gu guztiok, gure artean ados egon edo ez.

Baina azenarioak geureak dira, eta jaun/andre txiki agurgarriek horiek lapurtzeko makilak baino ez dituzte erakutsi. Eta azenarioak ez ditugu bakarka berreskuratu: datuek diote, bakarka, burua lehertuko zaigu. ●

Bizitzak ditugu jokoan



IRATI TOBAR EGUZKITZA
FEMINISTA ETA SINDIKALISTA

Bigarren olatuan edo dagoeneko hasia den hirugarrenean gauden ezin jakin. Bai, ordea, pandemia hasi denetik Euskal Herrian hildakoak ez direla gutxi izan, COVID-19aren kudeaketa negargarria izan dela eta osasun eta zaintza sistema publiko eta indartsuak behar ditugula. COVID-19ak jadanik krisian zegoen sistema heteropatriarkal kapitalistan sakontzea besterik ez du egin, egiturazko zapalkuntzen ondorioak azeleratuz; horregatik, pandemiaren baino, sindemiaz aritu behar dugu.

Osasun sistema kolapsora eraman dute, gizarte zerbitzuak guztiz pribatizatu eta zaintza merkantzia huts bilakatu. Negozioa egiteko erabiltzen ez denean –esplotazio eta esklabotza egoera gordinenean–, sistemari doan ateratzen zaizkio zaintza-lanak; hauek, etxeetan, emakumeok* burutuz.

Azken hilabeteetan, adinekoen egoitzazentro bateko langile eta egoiliarren senideekin espazio presentzial eta kolektibo bat partekatze aukera izan dut Portugaleten. Argigarria bezain gogorra. Muturreko egoerak –hildakoak– bizi izan dituzten bi kolektibo traumatizatu aurrez aurre ipini dituen. Feminiza-

Adinekoen egoitzazentro bateko langile eta egoiliarren senideekin espazio presentzial eta kolektibo bat partekatze aukera izan dut Portugaleten. Argigarria bezain gogorra

turiko sektore bateko aitortzarik gabeko langileak, haien gorputz eta bizitzak arriskuan jarri dituztenak; eta guztiz isolatu dituzten egoiliarrean senideak, harreman sozial eta afektiboak errotik moztu dizkietenak.

Langileen lan-kargak, gehiegizko ratioak, hastapenetan babes neuririk eza, beldurrak. Egoiliarren eta haien senideen kezka, isolamendu sozial eta fisikoa, kalitatezko arretarik jaso ez izana, beste egoitzetan gertaturiko hildakoak, beldurrak. Elkarrizketa ordu asko igaro behar izan dira, egoera traumatiko honetan bakoitzak bizitakoak besteari

leporatzeari utzi eta burua altxatuz ikusmira zabaltzeko.

Etorkizun hurbilean adinekoen egoitzetan gertatu denaren inguruko ikerketak eta erantzukizunak –baita politikoak ere– eskatu beharko ditugu. Bizitakoa ikertu, aitortu eta erreparatzeko bidean jartzeko. Ezin ahaztu Sestaon ezkutatu zizkiguten hildakoak. Ezin ahaztu Bizkaiko Diputazioak noiz eta nola eman dituen datuak, ezkutatu dituenak, egin dituen kudeaketak eta egoitzetan dituen irabazi ekonomikoak.

Langile eta senideak egoitzaz egoitza antolatzen hasiak dira. Elkarrizketa kolektibo horietan aldarrikapen komunitaria iritsiz: senide eta egoiliarrek subjektu gisa aitortzeko beharra, langile-egoiliar ratioak jaistekoa, kalitatezko arreta emateko langile gehiago kontratatzekoa eta egungo zaintza beharrei erantzuteko beste araudi bat, EAEko adinekoen egoitzei buruzko 126/2019 dekretua indargabetzen duena, ratio handiak izanagatik. Hauspotu ditzagun borroka hauek martxoaren 4ko greban kalean babesa emanez, eta urratsak egin ditzagun zaintza sistema publiko eta komunitarioa eraikitze, bizitzak ditugu jokoan. ●

2021 EuskarAbentura

espedizioa

IZEN EMATEA ZABALIK!

- Matrikulazio epea zabalik
- Martxoaren 12ra arte

▶ www.euskarabentura.eus

Babesleak

Laguntzaileak

Hedabide laguntzaileak

Kapitalismo berde teknologikoaz



DABID MARTINEZ
HACKTIBISTA

Ez dakit kapitalismo berdeari ongi etorria egin ziona zehazki nor izan zen. Baina badakit zein asmakizunarekin egin zuen egoerak okerrera: erabiltzen dituzten kapsulak birziklatu ere nekez egin daitezkeen kafe-ontzi horiekin. Seguru nago hori izan zela gure etxeetan sartu genuen lehenetarikoa. Aipatu bezala kapsulak ez ziren oso birziklagarriak eta ondorioz eztabaida sutsua eman zen enpresaren sare sozialen kontra. Aluminioa eta plastikoa. Eta barruan kafe hondar organikoak.

Beraien inbertsioa kolokan ikusi eta konpostagarriak ei ziren materialekin egin zuten kapsula. Eurek sortutako arazoa, eurek konponduz. Eta denak harro. Nolanahi ere, begi bistakoa da kapsulen merkatuak hazten jarraitzen duen heinean, alternatiba jasagarriagoak eskaintzeko presioa ez dela izan litekeen bezain handia.

Kapsulen ondoren, milaka asmakizun berri iritsi ziren. Eta arazo ekologiko bat sortu ondoren, kapitalismo berdea deritzon osasun larrialdia eragin zuten. Aipatzekoa da ez dela ingurumen-kezka bat buruan dutena, baizik eta gehiago saldu ahal izatea eta gero eta kirats handiagoa duen berniz ekologiko baidu bat hartzea.

Eta lasterketa horrekin bat egiten duten azkenak mugikorrak dira.

Mugikorrak kargagailurik gabe saldu zituen lehen enpresa estatubatuarra izan zen, bigarrena txinatarra. Nik dakidanez, bietako inork ez zuen eraba-

Enpresa ustez berde horiek ingurumenaz benetan kezkatuko balira, mugikor modularrak egitea daukatela bururatzen zait. Horrela, mugikorreko kamera apurtzen badut, ez diot beste guztia erabiltzeari utzi behar

ki produktu berriaren prezioa jaistea, osagai bat gutxiago zuelako. Mugikorra, mugikorraren eta kargagailuaren prezio berean. Lehengo egunean lagun batek esan zidan Europar Batasunaren gidalerroak norabide horretan joango zirela, etxean kargagailu ugari ditugulako eta ez dagoelako gehiago eduki beharrik. Eta ideia logikoa da. Kapitalismo basati batek eutsiko ez balio.

Gailu elektronikoen kargari dago-kionez, lehenik eta behin nabarmendu behar da azken urteetako berrikuntza-ren zati handi bat baterietan zentratu dela. Karga azkarra, karga magnetikoa,

haririk gabeko karga... Erosten ditugun mugikorren karga-abiadurak gero eta handiagoak dira. Nire aurreko mugikorrak 18W-ra kargatzen bazuen oraingoak 33W-ra egiten du. Ez daukat 33W-eko kargagailurik, mugikorrarekin zetorrena ez bada. Aurrekoa erabiliko banu, ez nuke erabiliko ordaindu dudana karga azkarra. Eta zer gertatuko litzateke? Ba, funtsean, mugikorrarekin ez datorren kargadorea erosiko nukeela. Marketinak saldu, nik ordaindu eta enpresak lapurtu didan hori berreskuratzeko asmoz. Berriz ordainduz. Noski.

Hala ere, enpresak berdetzat joko luke bere burua.

Enpresa ustez berde horiek ingurumenaz benetan kezkatuko balira, mugikor modularrak egitea daukatela bururatzen zait. Horrela, mugikorreko kamera apurtzen badut, ez diot beste guztia erabiltzeari utzi behar. Kamera-ren modulua erosten dut, aldatu egiten dut eta gailua normal erabiltzen jarraitzen dut berri-berriak dauden gainerako osagai guztiekin. Ez da ingeniaria izan behar antzemateko horrela erabat erabilgarriak diren osagai informatiko gutxiago baztertze moduan egongo ginatekeela. Baina tira, ideia hau ez da nireia. Berria ere ez da oso berria.

Era eta bide berean, eskertzekoa litzateke zaharkitze programatuaren teknikak erabiltzeari utziko baliote.

Baina ez. Kargadorea kendu. Proposatzen ditudan biak beren negozio ereduaren kontra egiten dutelako. Denak berdin jarrai dezan. ●



Ana García Mendoza Madrilgo Pilares Fundazioko langilea da, lan komunitarioko masterrrean psikologoa eta proiektu teknikaria. Etkez etxe laguntzen ditu adinekoak. García azaroaren 27an Irauli zaintza elkarteak Azpeitian antolatutako jardunaldietan hartu zuen parte (*Zaintzarako euskal sistema publiko eta unibertsal baterantz*).

Berak dio, menpeko izan arren, adinekoek bere buruaren jabe izaten jarraitu behar dutela eta gaur egun ez diegula uzten hala egiten. Madrildarrarentzat funtsean bi kontzeptu dira garrantzitsuak: eskubideak eta duintasuna. Pandemia aurretik ere landua duten zaintza ereduaz ari da García eta

aitortu du ez dutela ezer asmatu. Alabaina, pandemia betearen urtebete darabaina, Pilares Fundazioko langileak azaldutako eredu orain dugunarekin alderatuz gero, bere esanek barruak errazago astintzen dituzte. Menpeko diren adinekoen zaintza eredu duin batetik zein urrun gauden barneratzeko ariketa interesgarria da Garcíaren gogoeta irakurtzea.

Madrildarrak azaroko jardunaldietan eman zuen hitzaldiaren laburpena ekarri dugu ondoko orrialdeetara:

Eskubideak eta ardurak dituzte adinekoek. Eskubidea izan behar dute behar dutenean laguntza jasotzeko, eta erabakitze eskubidea ere bai. Gizarte honetan gauza bat gertatzen zaigu: per-

tsona menpekoa denean guk erabakitzen dugu dena bere ordean, autonomia galtzen dute. Bere bizitzaz erabakitze eskubidea izatea garrantzitsua da. Berak hartu behar du parte.

Bizitza interesgarriak izateko eskubidea dute. Bizitzaren erdigunean jartzen dira zaintza, ezinak eta mugak. Familien bizitza ere zaintzaren inguruan izaten da. Denok behar dugu bizitza interesgarria.

Eskubidea dute bizitza ez eredu-garriak izateko. Zergatik dira derri-gorrezko elementuak segurtasuna eta osasuna? Adinekoak ezin ditu ohitura ez osasungarriak izan? Ez diegu uzten eskema horretatik ateratzen eta eskubidea dute.



MENPEKOTASUNA DUTEN ADINEKOAK

Uzten al diegu bere buruaren jabe izaten?

Zenbat eta zimur gehiago orduan eta eskubide gutxiago? Haren iritzia kontuan ez hartzeko arrisku handiagoa? Erreportaje honetako solaskideen ustez, horrelako zerbait gertatzen da. Zahar egoitza bizitoki aukeratuz gero, haien eskubideak ia ezerezean geratzen dira. Egoitzan zein norbere etxean, bizirauteko zaintzen ditugu eta sarri ahazten zaigu galdetzea ea nola bizi nahi duten. Pandemia da adinekoen eskubideak eta duintasuna zokoratzearen adibide garbia: etxean gelditzeko esan, egoitzaz aldatu, bisitak kendu, gelan bakartu... Birusaren aurrean nola jokatu nahi duten galdetu gabe.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE  DANI BLANCO

Arriskua bere gain hartzeko eskubidea dute. Bizitza arriskua da. Zahar egoitzak itxita dauzkate pandemian. Nik arriskua hartu dut eta kafetegira joan naiz. Adinekoei ez diegu uzten arriskatz. Oso babestaileak gara, paternalistak. Guk proposatzen dugun ereduak arriskuak bere gain hartzen ditu. Denei ez die gauza berak balio.

Zaintza ereduak bi dimentsio ditu. Horietako bat da, pertsona erdigunean jartzen duen arreta. Baga, pertsona ezagutu eta zerbitzuak berera moldatu behar dira, ez alderantziz. Beraien berezitasunak ezagutu eta onartu behar dira. Oraingo ereduak ez du hori egiten. Biga, pertsona bere ikuspegitik ezagutu behar da: adina, generoa, osasun txostena, ja-

torria, maila sozioekonomikoa... jakitea ondo dago, baina horrez gain bakoitzak bere baloreak, sinesmenak, iragana... dauzka. Higa, arreta planak diseinatuko ditugu bere gaitasun eta desioen arabera. Fokua ez badugu jartzen gaitasuntan beti mugez arituko gara, mugak konpentsatzen beti (eta hori ere egin behar da). Laga, autonomia eta independentzia sustatu behar dira. Berak erabaki dezake, ezin da hori aldatu dependentzia daukalako. Maila funtzionalean arazoak dituztenean, mugitzeko edo garbitzeko laguntza behar dutenean, adibidez, oso ondo laguntzen diegu, borondate onez, baina haien autonomia eta independentzia birrintzen ditugu. Edo ez diegu iritzia eskatzen edo beraien orde zena

egiten dugu. Horrela jokatuta ez gara ari bere gaitasunak kontuan hartzen.

Pertsona erdigunean jartzen duen dimentsioaz gain, osoko arreta komunitatean txertatzeaz ari den atala azpimarratuko dugu. Mila eta bat zerbitzu daude, hainbat eta hainbat alorretakoak, dela kulturari, osasungintzari, etxebizitzarako... Zerbitzuak jaso ahal izateko hainbeste leihatila daudenean gazteak ere larri ibiltzen dira hori dena kudeatzeko, bada, pentsa administrazioak eskaintzen duen horren guztiaren aurrean nola sentitzen den adinekoa! Adinekoren baten senidea-ri entzun nion esaten halako zerbitzu ez zutela eskatu nahaspila ederra izango litzatekeelako horretan hastea. Zerbitzu denak batera eskaini behar ditugu.

Zerbitzu bakoitzak beretik begiratzen du eta ez du ikusi nahi komunitatean beste zerbitzu asko eskaintzen direla. Administrazioak, elkarteak, boluntarioak, merkatuak eta abarrek eskaintzen dituzten zerbitzu anitzez ari naiz. Gure proposamena zerbitzu katalogo osoa komunitatearen esku jartzea da.

“Adinekoei ebaluaketak egiten dizkiegunean galdetzen diegu beren desioak bete diren? Ez, ez diegu galdetzen. Kontatuko dugu zenbat aldiz erori diren”

Ana García

Psikologoa eta adinekoen zaintzailea

Beraz, zahartze aktiboaren gure paradigma ondokoa da: osasuna, segurtasuna eta parte-hartzea. Hirugarren hanka ahazten zaigu. Ebaluaketak-eta egiten ditugunean galdetzen diegu bere desioak bete diren? Ez, ez diegu galdetzen. Kontatuko dugu zenbat aldiz erori diren.

Desgaitasunaren esparruan, autonomiaren gaian, egin den ibilbidea interesgarria da. Medikuntza eredutik sozialerako pausoa ikaragarria da. Lehen

gaixoa zaindu behar zen, desgaitasuna sendatzen zen, orain ez dira gaixoak, herriarrak dira. Haien gaitasunak bultzatzea behar dira orain. Guk ere adinekoa herriartar gisa hartu behar dugu, gero lana egiteko. Orain zaintzeaz arduratzen gara, ikuspegi asistentzialagoa da. Zaintzeaz gain, lagundu behar ditugu, hala pertsonak aktiboagoak dira eta gure arteko harremana horizontalagoa da.

Hau dena ez diogu guk bakarrik, nazioarteko erakundeak ari dira gauza bera esaten, Osasunaren Mundu Erakundeak dio zaintza eredu zaharkituta gelditu dela eta eredu aldaketa proposatzen du. Horrez gain dio zaintzak ondasun publikoa izan behar duela. Europako Batasuneko erakundeak ere ildo beretik ari dira, pertsona erdigunean izango duen eredu defendatzen du, kalitatezko zaintza, eskuragarri egongo dena.

Halako eredu baten alde egiteko ebidentzia zientifikoa behar direla esango du norbaitek. Bada, badaude: depresio gutxiago, aldartea hobea, gutxiago asperitzen dira, familiak hobeto daude, langileak hobeto daude... Eta ekonomikoki jasangarriak dira eredu horiek.

Bukatzeke, hitz-hartze honen ideia nagusia esaldi batean bilduko dut: Beraiek dira bere buruaren jabe. Eta azpimarratuko dut adinekoek egitasmo bizigarriak izan behar dituztela. Etkez etxe nabil edadetuak zaintzen eta hurrengo egitasmoa ondokoa izango da: jakin dut muga fisiko asko dituen emakume bati tartak asko gustatzen zaizkiola. Beraz, hurrengoan tarta egingo dugu elkarrekin.



“Pertsonak ahaztu zaizkigu, helburua ahaztu zaigu”

Ana García psikologoa

“Zergatik behar dugu zaintza eredu aldaketa? Gizartea aldatzen da eta eredu ‘guaiak’ zaharkitzen dira. Oso atzera begiratzen badugu ikusiko dugu nola elkar babesten genuen garai batean eta elkarren artean konpontzen genituen arazoak. Erakundeak ere baziren, Elizatik zetozenak bereziki. Babes modu pribatuak ziren, ez ziren eskubideetan oinarritzen. European gerrak bukatu eta ongizate gizartea heldu zen, estatuek hartu zuten ongizatearen ardura. Eskubideetan oinarritutako sistema unibertsala sortu zen, ez zen eredu pribatua.

Garai hobeak ala okerragoak dira oraingoak? Baditu alde onak eta txarrak: elkarren arteko babesa galdu dugu, indibidualismoak irabazi du eta beskeen esku utzi ditugu ardurak.

Zergatik aldatu behar dugu daukagun sistema? Zaintza eredu ez antolatutik, zaintza eremu intimoan konpontzetik, elkarri laguntzean oinarritzen zen eredutik pasa gara sistema normatibo batera, egituratura, protokoloz batera, zerbitzuak ikuspegi teknikitik begiratzen dituen batera. Hori dena beharrezkoa da, baina helburua pertsonak dira. Pertsonak ahaztu zaizkigu, helburua ahaztu zaigu. Orain zerbitzua dago erdigunean, ez pertsona. Lehengo ereduaren onak zena eta oraingoak onak duena hartzeko garaia da.

Zer proposatzen dugu? Ez da ezer berria guk proposatzen duguna, batean eta bestean xurgatutakoa gauzatzen saiatzen gara. Gure ereduari deitzen diogu ‘arreta integralean oinarritzen den eta pertsona erdigunean duen eredu’. Duintasuna eta eskubideak dira bi kontzeptu nagusiak”.

IÑAKI LASAGABASTER

“Nork agindu dezake nagusien etxeko egoiliarra logelan itxita uztea?”

INIGO AZKONA

Iñaki Lasagabaster EHuko Administrazio Zuzenbideko katedraduna da. Asaldatuta dago hilabete hauetan nagusien egoitzatan gertatu direnak entzunda: senideei jakinarazi gabe ama egoitzaz aldatu; bisitak murriztu; logelari itxi birusak kutsatu ez ditzan... Katedradunak bere buruari galdetzen dio ea horrelako erabakiak nork har ditzakeen. Gizarte Zerbitzuei buruzko legea aztertu du eta ondorioztatu du administrazio publikoa esku hartzen ari dela arauak oso lausoak diren kontuetan. Gogorarazi du senideek, eta nola ez egoiliarrek, eskubideak dituztela.

Ana García Mendozak bezala (aurreko orrialdeetan), Lasagabasterrek hitzaldia Irauli zaintza elkarteak antolatutako jardunaldietan eskaini zuen azaroan.

Lasagabasterrek uste du egoitzak gai potoloa eta estrategikoa direla. Pandemia garaian administrazio publikoek egin dituzten esku-hartzeak eta horien estaldura juridikoak aritu zen hitz-hartzean. Ondoren duzue hitzaldiaren laburpena:

Lotsa sentitu dut gertatzen ari denaz, gertuko sentitzen duzun administrazio publikoa egiten ari den politikak ikusita.

Zergatik sentitu dut lotsa? Gauza harriarriak irakurri ditut. 91 urteko egoiliar bat egoitza pribatu batean zegoen eta egunero bi orduz ibiltzeko ohitura omen zeukan. Gelan itxi zuten. Baina nola agindu dizute gelan sartzea eta ateratzen ez uztea? Nola utzi zaituzte baldintza horietan?

Beste adibide bat, Espainiako Estatuan gertatutakoa. Irakurri nuen egoitzetako patronaleko pertsona batek esan zuela ez zuela inoiz ahaztuko egoitza batean ikusitakoa: medikuak behatzarekin seinalatuz esaten omen zuen: “morfi, morfi, morfi...”. Alegia, medikuak nagusien etxeko arduradunarekin batera erabakitzen zuen zainketa aringarrietara zeintzuk eramango zituzten. Gainerakoak egoitzan geldituko ziren eta morfina tratatuko zituzten, hau da, egoitzan hilko ziren. Zergatik hartzen zen erabaki hori horrela? Nork eta nola?

Hala, Euskadiko heriotza datuak begiratzen hasi nintzen. Bizkaikoak begiratu nahi nituen eta konturatu nintzen Bizkaiko Foru Aldundiak esan zuela datuak Osakidetzak ematen zituela. Gardentasunaz hizketan ari bagara, logikoa litzateke datuak jakin ahal izatea, baina erantzuna zen Osakidetzak ematen dituela. Bada, gero jakin nuen Osakidetzak ez zituela datuak ematen lurraldeka. Ez zegoen datuak jakiteko modurik! Hala, batean datuak filtratu ziren. Demokraziaren ikuspegitik atsekabe handia sortzen du halako egoera batek. Gaia jarraitu nahi nuen eta datuak lortzeko boroa egin behar nuen?

Gertaera hauen aurrean agintariekin ez dute erantzuten, epaitegiekin ere ez, eta gizarteak ere ez.

Askoz garrantzi gutxiagoko kontuetan epaitegietara jo da. Klean sei lagun baino gehiago ezin zirela elkartzeko agindu zutenean epaitegietara jo zen eta Justizia Auzitegi Nagusiak erabakia ilegalizat hartu zuen biltzeko eskubidea urratzen

zuela argudiatuta. Gauza bat da kalean sei lagunek topo egitea eta beste bat helburu jakin baterako jende asko elkartzea. Sei lagun kalean elkartzea ez da biltzeko eskubidearen kategoriara iristen. Dena dela, auzitegira eraman zen gaia. Bitartean jendea hil da egoitzetan eta ez da ezer gertatzen, logelan itxita daude eta ez da ezer gertatzen. Asaldatu nintzen.

Administrazio publikoaren esku-hartzeaz ari garela, bi gauza landu nahiko nituzke orain: legezketasun printzipioa eta egoitzetako araudia.

Legezkotasun printzipioa. Arau batek egon behar du zeinaren bidez botere publikoek esku hartu dezaket. Har dezagun irakaskuntzaren adibidea. Umeak noiz hasi behar dute eskolara joaten? Familiek zein eskubide dituzte? Umea zigortu daiteke? Jo daiteke? Harreman askoko eremua da irakaskuntza eta erregimen juridikoa ere konplexua da. Egoitzetan badira langileak, erabiltzaileak, senideak... Erlazio horiek guztiak nola formulatuko ditugu juridikoki? Nork agindu dezake egoiliarra logelan itxita uztea? Eskubideak dituzte! Eskubide askoz ezin dira baliatu, ezintasunak dituztelako, baina gurgildun aulkian dagoenak ere baditu eskubideak.

“ 91 urteko egoiliarrek negar egin behar du denbora batez berak aukeratu ez duen egoitzara eramango dutelako? Zergatik eta nork erabaki du?”

Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 legea. Gizarte zerbitzu denak pilatzen dira lege horretan. Ez zait egokia iruditzen. Gai asko dira eta oso garrantzitsuak. Egoitzek lege berezia beharko lukete izan. Lehen aipatu dut legezketasun printzipioa. Bada, legean faltan bota dut administrazioak egoitza batean esku hartzen duenean zein botere dituen azaltzea. Ez du zehazten zein agente erabili dezakeen. Nire lagun batek jakin du, egoitzakoek zuzenean ezer esan ez badiete ere, Gasteizen, haren gurasoa beste egoitza batera eraman dutela. Nork erabakitzen du egoitzatik egoitzara aldatzea? Eta gainera senideei esan gabe? Agian zaintza



INIGO AZKONA

eredua aldatu behar da, zeren beharbada gauzak dauden bezala hainbat kontu ezin dira bestela egin, baina ez naiz eredu aldatetaz hitz egiten hasiko orain. Nik diodana da legeak ez duela zehazten nola esku hartu behar duten agintean daudenek.

Egoitzetan ia eskumen osoa foru aldundiek daukate. 2009an, 2008ko legeari atal bat gehitu zioten. Bizkaian (agian Gipuzkoan eta Araban ere bai) araudi zehatzagoa eginda dago eta hori irakurri dut jakiteko ea diputazioak zein eskumen dituen eta esku hartzeak nola egin ditzakeen. Horri lotutako arau bakarra aurkitu dut eta ‘administrazio unitatea’ terminoa aipatzen du. Ez dira ageri ez senideak ezta egoiliarrek ere! Lagun batek beste gertaera bat kontatu dit. Amaginarrebak egoitza aldaketa eskatu zuen, baina amaginarrebaren iritzia kontuan hartu gabe antolatu zituzten egoitza batetik besterakoak. Nire lagunak Foru Aldundira jo zuen egoera argitzeko. Hori administrazio unitateak erabaki behar du? 91 urteko egoiliarrek negar egin behar du denbora batez berak aukeratu ez duen egoitzara eramango dutelako? Zergatik eta nork erabaki du? Egoiliarrek eta familiek zein eskubide dituzte? Erabaki horiei eutsiko dien erregimen juridikorik ez dago. Beste adibide bat bisitena da. COVID-19a dela-eta senideek astean bitan egin dezakete bisita eta beti pertsona berak joan behar du egoitzara. Ez dago araurik hori jasotzen duenik. Arauren batek esan behar du murrizketa zergatik egiten den. Diputazioak ebazpen simple bat ateratzen du eta kito.

Bukatzeko hainbat gogoeta egin nahi-ko nuke gai honen inguruan:

Lege berezia behar da egoitzetara-

ko: Legea egiteko orduan zuzenean eragiten dieten aldeek parte hartu behar dute. Legeak zerbitzu publikoaren ikuspegia izan behar du. Esaten da sistema pribatuaren eta publikoaren artean osatzen direla gizarte zerbitzuak. Hara, zerbitzu publikoak defendatu behar dira, egoitzen sektorean ere bai.

Lege horretan boterea nork duen adierazi behar da. Kudeaketa pribatuari buruz hamabost artikulua daude oraingo legean eta hor ikusten da pribatuari ematen zaion garrantzia. Bestalde, harritu nau zein landua dagoen zigorraren eta arau-hausteen erregimena. Ulertzen dut egoitzen kudeaketa konplexua dela, erabiltzaileak egoera berezian daude, baina halako garrantzia ematea zigorraren eta arau-hausteen alorrari? Nire ustez atal horrek du interes gutxi.

Langileen baldintzak kontuan hartu behar dira. Hemen (Gipuzkoan) greba martxan zegoen. Bizkaian ere egin zen. Nola eduki daitezke langileak horrelako baldintzatan? Gizarte zerbitzuek ez dute ezertarako balio langileak baldintza egokietan ez badira ari lanean. Zertarako araua, langileek hamar minutu baldin badituzte egoiliarrek garbitzeko?

Non daude egoitzak? Hirian egon behar dute, erdigunean. Asko ia mendian daude, urrun. Beste batzuk ia ezer ez dagoen tokian eraikitzen dituzte. Lurra merkeagoa den tokian eraikitzen dute egoitza eta urbanizatu ahala lurra balioa irabazten duenez gero saldu egiten dute. Hirigintza planetan diseinatu behar da egoitzak non egin, erdiguneetan alegia, eta ez esku pribatuei interesatzen zaien tokietan”. ●



Aiaraldeko baserri giroa euskalduntzen egindako lanagatik aitortza

Euskararen eta kulturaren alde egindako lanaren ordain, Eba Alonsok eta Josu Zabalak Aiaraldeko baserritarren omenaldia jaso zuten abenduan Laudion. Eguberrietako merkatuan egin zieten gorazarrea, Aiaraldeko baserri giroa euskararen munduan txertatzeko egin duten ahaleginarengatik. Omenaldiaren eragile Errilur elkarteko kideek esan zutenenez, "urte hauetan guztietan zuen prestutasuna aitortzeko balio dezala omenalditxo honek".

Eba Alonso (Areta, 1965) pedagogo eta logopeda profesionala da. Josu Zabala (Arakaldo, 1963), altzairu fabrikako langile Amurrion. "Ez dakit, bada, zer esan behar dizugun. Lan xumea da gurea. Zerbait egin behar denean, egiten dugu. Ez da besterik. Gabonak datozela-eta, turroi ikastaroa egin behar dugula asmatuko du Josuk, edo polboroi tailerra, mendi-martxak... Josu beti gauzak asmatzen, eta ni egiten!", esan digu Eba Alonsok. Josu Zabalak bere modura ikusten ditu gauzak, eta hitz bat du giltza: "Auzolana. Ematen du zenbaitek uste duela geure zerbitzura eduki behar dugula jendea, geureak diren lan batzuk egiteko, alegia. Lantegian ere ikusten dut nik hori: nahiago dugu hainbat lan -inoren ardura ez direnak-, bestek egitea, norberak egitea baino. Aldiz, uste dut herritarrok ere badugula ardura". Auzolanaren aldeko aldarria da Zabalarena.

EUSKALDUN BERRI BI LAUDION

Zabalaren etxean euskaldunak ziren. Gogoan du, txikitan, Laudioko mojetarra ekarri zutela ikasketak egin zitzan. “Behin, joan zen gure aita eskolara, ni zelan ari nintzen galdetu, eta esan omen zioten: ‘Txintxo-txintxo da. Egia esan, ez du ezer esaten. Begira-begira bai, egoten da, baina esan, ezer ez!’. Gure aitak, orduan: ‘Kontua da guk etxean euskaraz egiten dugula’. Eta mojaren erantzuna: ‘Hori konpondu ohi da!’. Halaxe galdu nuen apurka-apurka euskara. Hitz batzuk baino ez nekizkien”. 18 urte bete arte. Orduan, euskaltegira joan, izena eman, eta zirt-zart: “Erabaki nuen harrezkero gurasoekin gaztelaniarik ez nuela egingo. Hizkuntz jarrera aldatu nuen, besterik gabe, inori ezer esan gabe: euskaraz hasi nintzen”, eta horrelaxe egin du oraindano arteko bidea.

“

Nirekin lan egin nahi duenari euskaraz hitz egitea eskatzen diot, ez euskara agiria”

Eba Alonso

Eta, hain zuzen, euskaltegian ari zirela ezagutu zuten Alonsok eta Zabalak bata bestea. “Nire familia erdalduna da. Euskaltegian ari ginen biok, ikasten, eta hasieran, gaztelaniaz. Alaba jaio zitzaigunean erabaki genuen: etxean euskaraz egingo genuen”. Pentsatu eta egin omen zuten, bestelako nekerik gabe. Horretan, Zabalak hartu du hitza: “Euskaraz bizitzeko ezintasunaz ari dira batzuk, eta ez dakit, bada! Gu baino zaharragoak direnei dagokienez, ez noa ezer esaten, baina gu baino gazteago direnek euskaraz bizitzeko aitzakiarik ez dutela ueste dut: bateko eskola, besteko tresna eta baliabide... aitzakiarik ez”. Hariari tiraka mintzatu da Alonso: “Euskara gure eguneroko bizitzan dago. Euskaraz egiten dugu etxean, euskaraz egiten dut lanean... Eta ez gara Laudion bakarrik. Egunero ikusten dut gurasoak euskaraz ari zaizkiela beren seme-alabei”. Alabaina, bat egin du Zabalaren oharrarekin: “Baina bestelakorik ere ikusten dut: gu-

raso gazteenak, euskaraz jakin arren, seme-alabekin gaztelaniaz ari direla. Zergatik jokutzen duten horrela galdetu, eta erantzuna da seme-alaba horiek gero ere hitz egingo dutela euskaraz, nahi baldin badute. Nik, kontrakoa esaten diet: ‘Ez ukatu eskubide hori zeuen seme-alabei. Bizi euskaraz. Gaztelania kalean dago, ez dute gaztelaniaz ikasteko zailtasunik izango’”. Euskaldun berriaren hitza da Alonsorena.

Alonsok Pedagogia ikasketak egiten hasi zenean eman zuen izena euskaltegian. “Uholdeen ondoko urtean, 1984an. Euskaraz ikasi nahi nuen, euskaraz hitz egin nahi nuelako, geure kultura barrutik ezagutu nahi nuelako. Ez nuen titulurik nahi. Eta orain ere, nirekin lan egin nahi duenari, euskaraz hitz egitea eskatzen diot, ez euskara agiria. ‘EGA daukat’, esaten didatenean, zera erantzuten diet: ‘Niri berdin zait titulua. Nik euskaraz hitz egiten duen pertsona nahi dut, ez titulua gau-mahaitxoaren gainean duena’”. Euskaraz ikasten hasi zen garaian, euskaldunak zituen zenbait lagun. “Baina gaztelaniaz egiten genuen. Hala ere, euskararen aldeko dinamikan hasi nintzenean, euskaraz egiten hasi nintzen haiekin. Geroago, EGA titulua lantzen hasi nintzenean, hura gorrotatzera iritsi nintzen, hala EGA nola euskara, eta ikasteari utzi nion”. Urtea igaro eta berrartu zuen euskara. “Tituluaren presioa baz-

tertu eta arnasa hartu nuen”. Hizkuntzaren bakea egin da, nonbait ere.

KALETARRAK BASERRITARREKIN BAT

“Kaletarrak gara, baina baserri giroarekin lotura estua dugu”, esan digu Alonsok. “Batak bestea ezagutu genuenean, esate baterako, Josuren amamaren Arakaldoko Madariagako baserrira joaten ginen igandero bazkaltzera. Niri dagokidanez, txikitan, gure amamaren Morteru baserrira joaten ginen noiznahi. Eta udan hantxe ginen lehengusu-lehengusina guztiak. Josu ezagutu nuenean, berriz, astebururo joaten ginen Morterura, amamarekin jokoan egitera, kartatan”. Gaur egun, neba Fidel du Morterun, artzain.

Beren mundu-eskarmentu eta bizi-esperientziaren parte inportante dute baserria gure bi solaskideek. Halaxe heldu zen Alonso, esaterako, Arabako artzain txakurren elkarte Arateko kide izatera, eta han, txapelketak eta erakusketak antolatzea dagokio. “Duela 27 urte sortu zen elkarte, eta bertako hainbat kide euskaldunak izan arren, bilerak egiten hasi ginenean jabetu nintzen gaztelania elkartearen barruraino sartuta zegoela. Hara, nire euskara ez da munduan denik eta aberatsena, hiztegia ere ez dut oso oparoa, baina beti euskaraz hitz egiten saiatzen naiz. Lortu dugu gure bileretan



Eba Alonsok eta Josu Zabalak, kaletarrak izan arren, lotura estua dute baserri giroarekin. Artzain txakurren txapelketak direla, neguko azoka dela... gertutik jarraitzen dute baserritarren bizimodua. Euskara eta euskal kultura giro horretan txertatzen saiatu dira bi emazte-senarrak.



Ezustean harrapatu zituzten Eba Alonso eta Josu Zabala azoka egunean. Omenaldia hunkigarria izan zela aitortu dute biek. Neguko azokan parte hartzen duen Fidel Largatxa artisauaren oroigarria eman zieten.

euskara sartzea, taldeko Whatsappean ere berdin, euskara egotea. Euskaraz ez dakitenek dute arazoa, jakina. Inoiz, baten batek idatzi izan du: 'Euskaraz idazten dute, eta gainera ez ulertzeko moduan'. Alegia, hitz egiten duten moduan idazten dutelako batzuek, ez idatzizko euskara estandarrean. Euskara zirkulu horretan normaltasunez sartzea lortu dugu. Eta ondo, eta artzainak pozik, eta ni ere bai".

Gaur egun, antolatzen dituzten ekitaldi guzti-guztietan euskara eta kultura egon daitezen lan egiten dute. Eta Zabalak laguntzen du, Alonsok esan digunez: "Artzain-txakurren txapelketak edota erakusketak direnean, mintzaldia egiten digu Zabalak. Lehenengo egunean, luzatzen ari zela eta Josuri amaitzeko agintzeko esanarazi zidaten, baina, harrezkero, jendea ohitu da Josuren mintzaldi handietara, eta arretaz aditzen ditu udako solstizioari nahiz gure kulturari dagozkion bestelako jakingarriak". Eta, bestalde, beti jarduten dute baserriaren gorantz, baserriak ekarri digun kulturaz, tokiko pertsonaiaren bat ere omenduz. Izan ere, harrotasuna lantzeko bidea ematen dio horrek Zabalarri: "Harrotasuna landu egin behar baitugu. Bizitza osoan egin duen ahalegina nola edo hala eskertu behar diogu baserri-tarrari. Harrotzeko moduko lana egiten dutela iruditzen zait".

OMENALDIA

Neguko azoka izan ohi da Laudion abenduan joan deneko hamar urtean.

Bestalde, urtariletik abendura, ostegunero azoka egin ohi da eta larunbatero ere pandemia garaia hasi zenetik, Errilur elkartearen eskutik. Horrek, tokiko ekoizleen elikagai agroekologikoak kontsumitzaileen eskura jarri ohi ditu.

“

Euskaraz bizitzeko ezintasunaz ari dira batzuk, eta ez dakit, bada! gu baino gazteago direnek euskaraz bizitzeko aitzakiarik ez dutela uste dut: bateko eskola, besteko tresna eta baliabide..."

Josu Zabala

Urte amaierako azokak indar berezia ohi du, eta baserri-tarrekin batera han izaten dira artisauak ere, herriko ikastetxeak, Laudio bertako Basalarrina elkarteak, Kirikiño aisia-taldea eta beste. Aurten, pandemia egoera dela kausa,



Neguko Azoka ez da egin. Zabalak esan digu: "Hasieran gauza txikia zen azoka, baina indarra hartu du. Duela bizpahiru urte, berriz, Basalarrina elkarteak azoka laguntzea erabaki zuen, hura aberastea, hari euskaratik eta kulturatik geure ekarria egitea". Haurrentzako jolasak antolatu zituzten, marrazki sariketa, euskal dantzak eta era bateko eta besteko tailerrak. "Euskaratik eta euskaraz, nahi genuen. Ez da, beraz, postua jarri eta batzuk saldu eta beste batzuk erosi. Hori baino gehiago nahi genuen, bestelako konplizitate batzuk lortu". Eta, hain zuzen, konplizitate nahi horrek, lan esku-zabalak, ekarri die omenaldia Alonsori eta Zabalarri.

Ezustean, aitortza jaso dute, Alonsok esan digunez: "Ez genuen horrelakorik espero. Ostegunero azoka eguna zen, eta hantxe ginen gu, geure gauzetan, beste zenbaitekin batera. Orduan, momentu batean plazara joan ahal ginen esan zигuten Josuri eta bioi, eta han, omenaldia jaso genuen. Hunkigarria izan zen". Zabalaren azpimarra: "Aitortza guri egin digute, baina auzolanaren meritua da guztia. Errazago da aitortza fokalizatzea, baina hori baino inportanteago iruditzen zait guk egindako lana bestek on-tzat hartzen duela ikustea, gure lanak, modu batean edo bestean, eurak harrotzeko ere balio izatea".

Horrelaxe jaso zuten Alonsok eta Zabalak neguko azokan parte hartzen duen artisauetako baten oroigarria. "Fidel Largatxarena da, zoragarria. Artista handia da Fidel, sormen handikoa". ●

“ ”

Haurrak katean eta mugaz bestalde ekoiztea ez da jasangarria

Itziar Alkorta

ZUZENBIDE ZIBILEKO IRAKASLEA

Itziar Alkorta Idiakez Zuzenbide Zibileko irakaslearen ustez, haurdunaldi subrogatuak giza eskubideen kontrakoak dira. Hala ere, nazioarteko debeku bat posible ez den bitartean, arautze murriztailearen aldekoa da.

 JUNE FERNÁNDEZ

Pikara
online magazine

Elkarrizketa hau Pikara Magazinek argitaratu du eta Creative Commons lizentziari esker ekarri dugu.

Ciudadanos alderdi politikoak 2017. urtean haurdunaldi subrogatuak arautzeko lege proposamen neoliberala Espainiako Diputatuen Kongresuan aurkeztu zuenean eztanda egin zuen eztabaidak Espainiako Estatuan. Urte hartan ere, EH Bilduk oso bestelako legeztatze proposamena egin zuen Eusko Legebiltzarrean: osasun sistema publikoan eta diru trukerik gabekoa. Feminismoan, korrante abolizionistak izan du oihartzun handien, alokairuzko sabelak emakumeen gorputzaren esplotazioan oinarritzen direla argudiatuta, besteak beste. Euskal Herriko mugimendu feministako hainbat kidek ere analisi kritikoa zabaldu dute, negozio globalizatu hori bizitza eta kapitalaren arteko talkan kokatuz.

Itziar Alkorta Idiakez (Donostia, 1967) euskal feministontzat gai hone tan aditu nagusia da. EHUKo Zuzenbide Zibileko irakaslea, 2001ean lagundutako ugalketaren tratamendu juridikoari buruzko doktoretza tesia defendatu zuen, bi urte geroago erreferentziazko liburu gisa publikatu zuena. Tartean, doktoretza osteko formazioa Amerikako

Estatu Batuetako bi bioetika zentrotan osatu zuen eta han obulu salmentaren eta haurdunaldi subrogatu komertzialaren fenomenoak ezagutzeko parada izan zuen. Geroztik, Europako Legebiltzarrari zuzendutako bioteknologien arauketaren inguruko gomendioak egin ditu, eta ikerketa eta aholkularitzaz gain, zabal-kunde lan handia egiten du.

2020ko azaroaren 18an, *Pikara Magazine*-k hamar urte bete zituen egunean, Azpeitiko Emakumeen Txokoak antolatutako solasaldian egin nion elkarrizketa. Aitortu nion amatasunak nire ikuspuntua aldatzera eraman nauela, eta zera erantzun zidan: “Gai hau oso esperientziala da, argudio guztiak dira baliozkoak, bai burutik zein errailetatik ateratzen zaizkigunak”.

Izenak badu izana. Zein izen erabiliko dugu guk, “alokairuzko sabelak” edo “haurdunaldi subrogatuak”?

Ez zaizkit ez bata ez bestea gustatzen. “Haurdunaldi subrogatua” anglizismo batetik dator, *Baby M* kasuan jatorria duena: 1986an New Jerseyko [AEBak] mediku bat estatu hartako lege zibilak

aurreikusten duen *surrogacy* deitutako figura batez baliatu zen, emazteak haurrik ekarri ez zuela eta, bigarren emakume batekin kontratu bat sinatzeko. Mary Beth Whitehead intseminazio artifizialaren bidez bere haziarekin haurdun geratu zen, erditzerakoan haurra emango zuela adostu ondoren. Inportatutako termino zentzugabea da gure testuinguruan, etimologiaren aldetik zein esanahiaren aldetik. Aditzera ematen du ordezkaritza kontratu bat besterik ez dela. Bestetik, “alokairuzko sabelak” ez dut gustuko, ez direlako errespetuzko hitzak horrelako kontratuetan parte hartzen duten emakumeentzat. Beste hitz bat asmatu beharko genuke denon artean!

Zure ustez, legearen aurrean nork izan behar du jaioberriaren ama?

Ugalketaren zatikatzeak izugarritzko burohauste juridikoak dakartza. Ikertzaileak konturatu zirenean emakumeok gai garela edonoren obuluak onartzeko (organoak onartzeko, aldiz, bateragarritasun genetiko beharrezkoa da), ikaragarritzko ezustekoa hartu zuten. Nire ustez, zibilizaziozko egitatea izan zen. Kapitalak aukera ikusi zuen: giza ernal-

tze industriak obuluak in vivo transplamtatzeaz gain izoztea eta esportatzea lortu zuenean, umeak katean ekoiztearen negozioa deskubritu zuen. Demagun obulua Ukrainako emaile anonimo batek jartzen duela diru truke, ernaldutako obulu hori Indiako emakume bati transferitzen zaiola eta, haurra jaiotzen denean, Donostiako emakume batek jaso ko duela, prozedura ordaindu duelako. Ikuspegi juridiko batetik, nor da ama? Karga genetikoak jarri duena? Haurdunaldian haurrarekin hartu-eman fisiologikoa izan duena? Ala ama soziala, adopzioekin gertatzen den bezala? Erantzun egokia eman nahi badugu, balizko gurasoez gain, haurrengan, emakumeengan eta eraiki nahi dugun gizartean pentsatu behar dugu.

AEBetan nor da ama, legearen arabera?

Ordaintzen duena, oso argi daukate.

Espainian, ordea, erditzen duena da ama?

Espainian ez dago arautua, ezta debe-

katua ere. 1988. urtean egin zen giza ugaltze teknikak arautzeko legea eta zehazten zuen horrelako kontratuak ez direla baliozkoak. Hortaz, kode zibilera jo behar dugu: ama da erditzen dena, ez ama genetikoak eta ezta ordaindu duena ere. Baina aita genetikoak aitatasuna eskatu dezake eta hori egiten dute bikote gehienek: aita umea jaio den herrialdean DNA proba eskatuko du, haurra erregistratuko du eta, ondoren, bere bikoteak haurra adoptatzeko tramiteak egingo ditu. 2019an Justizia Ministerioak instrukzio baten bidez debekatu zuen atzerritik ekarritako umeak erregistratzea, baldin eta herrialde horretako epaile batek ebazpen judiziala eman ez badu. Ukrainan ez dute ebazpen hori ematen (bai ordea AEBetan) eta, horregatik, balizko familiek arazoak izan dituzte. Gainera, Ukrainako Ministerio Fiskalak ospitale batean esku hartu du, haurren salerosketa leporatuta.

Haurdunaldi subrogatuen praktika giza eskubideen kontrakoa dela uste baduzu ere, arautzearen aldekoa zara.

Bi eredu gertutik ezagutzeko aukera izan dut. Alde batetik, Kalifornian [AEBak] fenomenoak erabat onartua eta hutsalduta dago. 35 urte daramatzate eta oso ondo ordaindua dago! Neska gazte askok beren ikasketak ordaintzeko darabilte, 100.000 dolar inguru kobratzen dituzte. Legeak emakumeei gutxieneko diru sarbideak izatea exijitzen die, umeak inguru egokian hazi ditzaten. Hau da, ez dira emakume txiroak, paperik gabeko etorrikin ezin du haurdun subrogatua izan.

Bestetik, Indiako emakumeen egoera ezagutu dut, bai Indian bertan zein Australiara migratzen dutenena. Horiek bai, emakume txiroak dira eta diru sarbidea lortzeaz gain, bederatzi hilabetez bizi baldintza duinak izateko estrategia gisa ikusten dute: beren umeekin, senarrendik urrun egongo dira, egunero hiru aldiz jango dute...

Leku horiei 'emakumeen abeltzariak' edota 'haurrak egiteko fabrikak' izenak jarri dizkiete ahots kritikok.

Bai, baina ospitaleak dira. Han emakumeak ondo monitorizatuak daude, izan



Besteentzako haurrak izango dituzten emakumeak Indiako ospital batean.

ere, inor ez dago prest emakume bati ordaintzeko haurdunaldi hori osasun aldetik bermatua ez badago. Nik uste dut nazioarteko debeku batera jo beharko genukeela, esplotazioa ikusten dudalako praktika horretan. Baina ametsezkoa da, AEBetan oso errotua dagoelako; Nazio Batuen Erakundearen asanblada orokorrean ez dute ezta gai-ordenean sartu ere. Bien bitartean, eskaria murrizteko modu bat izango litzateke gurean arautzea, inoren eskubideak urratu gabe. Hau da nire proposamena: orain bezala, erditzen dena da ama, ez bitartekari edo *surrogate* bat, eta erregistro zibilean lehendabizi bera agertuko da. Ondoren, epailearen onespenearekin, bere borondatez umea emango du. Bigarren baldintza: umeak erregistro zibileko haren jatorriari buruzko datuak ezagutu ahal izango ditu. Azkenik, zuzenbide kontinentalak arautzen du giza prestazioak ezin direla ordaindu. Nik ezin dut giltzurrun bat erosi eta, era berean, haurra izateko emakume baten gorputza baliatzeak komertziotik kanpo egon beharko luke. Haurdunaldi subrogatuak onargarriak iruditzen bazaizkigu, modu burujabe eta jasagarrian egiteko prest al gaude? Ni prest nago.

Arazoa globalizazioa da: familia askok nahiago dute kontratu komertziala legeztatu duen herrialde batera jo zuk proposatzen duzun eredu murriztailearen baldintzak onartu baino.

Hala da. Australian hasieran legeztatu zuten, gero erabaki zuten bakarrik altruista izan zitekeela, ordaindu gabekoa. Zuk esan bezala, jendeak nahiago du Indiara edo Thailandiara joan, ez dutelako umea erditu duen emakumearen albisterik izan nahi. Baina nire tesirako are eta etsigarriagoa den beste zerbaite gertatu da Australian: atzerrian egindako haurdunaldi subrogatua Zigor Kodean lurraldez kanpoko delitu gisa kalifikatzeko ausardia izan badute ere, lege hori ez da aplikatu eta haurrak erregistratzen jarraitzen dute. Zergatik? Gurasoak kartzelara eramateak umearen interes gorenaren lehenetsi behar den doktrina urratzea dakarrelako.

Frantzian, ordea, haurdunaldi subrogatuak debekatu dituzte. Zer gertatzen da han adingabeen interes gorenarekin?

Frantzian askoz ere zorrotzagoak izan dira, bai. Bikote heterosexual batek Ka-

liforniatik umea ekarri zuen, epaileak esan zuen bazekitela kontratu hori legearen kontrakoa zela, eta ondorioz umea adopzioan ematea agindu zuen, aitarien haziaren bidez jaio bazen ere. Giza Eskubideen Epaitegira heldu ziren, umeak ja 14 urte zituela, prozesu horretan nazionalitate barik hazi zen... Estrasburgok erabaki zuen ume horrek ez zuela errurik, bere gurasoak zirela eta eskubidea zuela atzeraeraginezko nazionalitatea izateko. Mekanismo maltzurra garatu da: alegia, balizko familiek bada-kite legearen kontra egiten dutela, baina negozioa ondo egituratuta dago eta hor daude bidean agertuko diren arazoak konpontzeagatik kobratzen duten agentziak. Estatuak agentzia horien jardueraren kontra erraz egin lezakete, baina ez dute egiten! Lasai asko daude zerbitzu hori eskaintzen.

“ ”

Umerik izateko aukerarik ez baduzu, zure senide edo lagun bat prest badago haurdunaldia diru trukerik gabe izateko eta zuri haurra emateko, epailearen aurrera joateko aukera duzu

Erresuma Batuko egoeraz

Lege-iruzurra egin duten balizko gurasoak zigortzearen alde al zaude? Nazioarteko debekurik lortzen ez dugun bitartean, ahalik eta min gutxien egiten lagunduko duen akordioak legeztatzearen aldekoa naiz. Erresuma Batuan, esaterako, umerik izateko aukerarik ez baduzu, zure senide edo lagun bat prest badago haurdunaldia diru trukerik gabe izateko eta zuri haurra emateko, epailearen aurrera joateko aukera duzu, egoera azaldu eta hark erabakiko du ea akordio hori garbia den, hau da, benetako adostasun informatua dagoen.

Hala bada, “nire gorputza, nire erabakia” leloa onartuko genuke?

Bai. Ez badago preziorik, ez badago pizgarriarik ezta presiorik ere, baizik eta esaterako ahizpa laguntzeko grina, uste

dut emakume hori libre dela eta bere autonomia errespetatu beharko dugula.

Eta motibazioa ez bada senide edo laguna laguntzea baizik eta ezezagunak laguntzea, militantzia moduan?

Kasu horretan ere epaileak perituen txostenen bidez ebatziko luke ea emakume horrek adostasun informatua eman duen. Zergatik ez?

Emakumeak besteekiko sakrifizioan hezten gaituzte. Obuluen negozioan ikusi dugu altruismoa darabiltela emakumeak erakartzeko.

Ciudadanos-en lege proposamenak “ordaina duen modalitate altruista” proposatzen du. Ez ditzagun errepikatu obulu dohaintzan egindako hanka-sartzeak! Altruismoaren argudioa oso azalekoa da, sistemari estaldura polita emateko baino ez du balio. Bai emakumeek zein gizonek, patrikan mila euro sartze-ko ematen dituzte gametoak, horregatik jotzen dute klinika pribatueta eta ez ospitale publikoetara. Eufemismoak kontzientzia desarmatzeko balio du eta industriaren etekina handiagotzen du. AEBetan obuluak enkantean jartzen dituzte! Harvardeko ikasle kaukasoar batek 120.000 dolar eskatu ditzake erraz. Haiek gutxienez ez dira hipokritak!

Kanadako estatu batek haurrak bi guraso baino gehiagorekin erregistratzea onartu du. Ugaltze-eredu alternatiboak babesteko eta sustatzeko aukera egokia iruditzen zaizu?

Bai, nik uste dut hori dela bidea. Figura biologiko eta sozial horien artean zaintza eta jagoletza akordioa sinatzen da, denek parte hartzen dute haurraren heziketan, umeak bere biografia ezagutu eta onartzen du... Ordea, haurdunaldi subrogatuaren dinamikak bikote egitura tradizionala indartzen du, baita bikote homosexualen kasuan ere.

Dena den, gure buruari galdetu beharko genioke ea haurrak izatea eskubidea den. Haurdunaldi subrogatuaren aldeko aktibista bati entzun diot: “Emakumea naiz, nire ugaltze-proiektua aurrera eramateko eskubidea daukat eta Estatuak bermatu behar du”. Nire ustez, Ciudadanos-ek ere programan jasotzen duen eskubide hori ez da existitzen. Adopzioen nazioarteko araudiek argi adierazten dute umeek gurasoak izateko eskubidea dutela, baina gurasoek ez dutela umeak



ANDONI CANELLADA / FOKU

izateko eskubiderik. Horri eutsi behar diogu.

Adopzioak sustatzea eta erraztea aldarrikatzen dute alokairuko sabelen kontrako feministek. Baina adopzioen inguruan ere esplotazioa eta salerosketa barra-barra salatu izan dira, bai herrialde txirotuetan zein etorkinen artean ere.

Egun ume gehiago ekartzen ditugu gurea amatasun subrogatu bidez nazioarteko adopzioen bidez baino, iturriak itxi direlako, arazo etikoak tartean. Bi gaiak oso lotuta daude: familiek bide berri bat

ikusi dute haurdunaldi subrogatueta. Frantziako adopzio tasak oso onak dira baina barne-adopzioekin gertatzen dena ez da garbia: haurdun dagoen emakumeak haurra aldeztu aurretik adopzioan emateko prozesua martxan jar dezake, era anonimoan, eta emakume etorkin txirotuak dira aukera hori gehien hartzen dutenak. Hipokrita iruditzen zait amatasun subrogatuak debekatzea eta aldi berean etorkinei umeak kentzean datzan eredu hori onartzea.

Indiako Gobernuak lortu du haurdunaldi subrogatuaren fenomenoa

errotik murriztea. Azaldu dezakezu?

Politikoki oso azkarrak izan dira. Krisialdi ekonomikoan, Indiako zenbait estatu oso industrializatuta, "berrikuntza laborategiak" deitutako ospitaleak jarri zituzten martxan: batzuetan entsegu klinikoak egiten zituzten eta beste batzuetan ama subrogatuak monitorizatzen zituzten. Hau da, giza haragia lehengai zuen industria sortu zuten. Pobretutako jendea ospitale horietara zihoan baldintza onak eskaintzen zituztelako, baina hemen onartuko ez liratekeen transakzioak ziren. Indiako legebiltzarrak erabaki sotil bat hartu zuen: aduanetan kanpoko enbrioirik sartzeari ez onartzea, arrazoi sanitarioak argudiatuta. Horrela eten zuten horniketari, atzerritarrak ez baitzeuden Indian prozesu guztia egiteko prest. Ondoren, lege baten bidez haurdunaldi subrogatuaren praktika indiarren artean modalitate altruistan egitera mugatu dute. Zioen azalpenean adierazi dute haurdunaldi subrogatuak biokolonialismoaren adar berri bat direla. Uste dut termino hori benetan argigarria dela

“ ”

Hipokrita iruditzen zait amatasun subrogatuak debekatzea eta aldi berean etorkinei umeak kentzean datzan adopzio eredu onartzea

Frantziako Estatuko egoeraz

Pandemiak ugaltze-turismoa delakoa geldiarazi du?

Obuluen esportazioak ez dira eten. Haurdunaldi subrogatuaren arazoak egon dira atzerrira umearen bila joateko edo zesarreko programatzeko data zehazteko, balizko gurasoek bidaiatzeko ziurgabetasun handia dutelako.

Agian momentu ona izan daiteke zer edo zer aldatzeko?

Bai! COVID-19ak kalte handia eragin du, baina testuinguru hau aprobetxatu beharko genuke gauzak bere onera ekartzeko. Nik uste dut haurrak katean eta mugaz bestalde ekoiztea ez dela ja-sangarria. ●

David Goliathen aurka Wall Streeten

Reddit interneteko plataforman antolatutako gazte talde batek Wall Street jo-puntuari jarri eta AEBetako burtsako erraldoi ugari porrotera bultzatu ditu, behea jota zegoen GameStop enpresan akzioak masiboki erosi ondoren. Gertakari polemikoak finantza-sistemaren arrakalak eta erregulazio faltaren ahulguneak agerian utzi ditu.

 MIKEL EIZAGIRRE

AEBetako eta munduko finantzagune nagusia, Wall Street, Redditeko foroetan koordinatutako inbertitzaile txikien eta burtsako zenbait erraldoiren arteko borrokaren lekuko izan da duela gutxi. Europar sona handirik izan ez duen arren, Atlantikoaren beste aldean finantza merkatuaren erregulazioaren inguruko eztabaida sutua piztu du, inbertsio funts indartsuak amildegiaren ertzean jarri ostean.

Nola liteke foroetan antolatutako gazteek handi-mandi ekonomikoari halako zaplastekoa ematea? Funts horiek aurretiaz egindako "motzeko salmenta" (*short-selling*, ingelesezko adieran) masiboetan datza gakoa. Izan ere, ohiko baldintzetan, litekeena da etengabeko galerak izaten ari diren konpainien akzioen prezioak behera egitea.

Aurreikuspen seguru horrekin, errenka dibilen zaldiak galdu egingo duela apustu egiten du broker askok, nolabait esatearren. Aurreikusten ez zutena, ordea, zera da: inbertsiogile ugari irrazionala dirudien eragiketa bat simultaneoki egitea, alegia, galtzen ari den enpresa baten milaka akzio erostea. Kasu honean, inbertsiogile ez-profesional gazteen erosketa masibok GameStop enpresa galtzailearen kotizazioan igoerak eragin zituzten, eta ondorioz, erorreraren aldeko apustua egin zutenak ehunka milioi-

ko zuloekin utzi zituzten. Inbertitzaile txikiek, gainera, ez dute inolako araurik hautsi eta jende guztia errentzat eskuragarri dagoen informazioa baliatuta planifikatu dute euren estrategia.

EPE MOTZEKO AMARRUA

Horren inguruan argi apur bat gehiago isurtzeko, errepara diezaiegun *short-selling* eragiketa finantzarioaren xehetasunei. Burtsa-jokoa enpresen akzioak erostean datza, aurreikuspenetan oinarrituta eta dirua irabazteko asmoarekin. Prezioen gorabeherak eskaintzaren eta eskariaren legeak arautzen ditu hein handi batean, hots, akzio batzuk zenbat eta gehiago erosi, orduan eta garestiago bilakatuko dira, eta alderantziz. "Merkatuaren esku ikusezinaren" legeari berea egiten uztea ala erregularizazioaren beharrezana, horra hor burtsaren inguruko eztabaida hegemonikoa. Askoren ustez, aipatu motzeko salmentak debekatuta egon behar luke, beste zenbaitentzat, berriz, "librea" izan behar luke.

Egun batzuetarako akzio bat maileguan hartzea suposatzen du, eta tarte horretan, akzioa beste behin salerostea. Prezioa jaisten bada, bi baloreen arteko diferentziaren balioa irabazten da. Igotzen bada, aldiz, galdu egiten da. Ondorioz, *short-selling* eragiketek badute arrisku bat, probabilitate txikikoa; baina gertatuz gero kalte izugarria ekar dezake-

keena: irabazi mugatua dute (maileguan hartutako kopuruaren jatorrizko balio osorainokoa) baina balizko galera, berriz, mugagabea da.

Arrisku handiena eraso espekulatibo koordinatuetan datza, hau da, sarritan inbertsore handiek kalifikazio agentziei ordaintzen diete enpresa jakinei edota estatuen zorrari kalifikazio txarra jar diezaieten. Orduan, epe motzeko akzioak erosten hasiko dira denak, eta enpresa zein estatu horrek ezer gutxi egin ahal izango du eraso espekulatiboaren aurrean. Zenbait kasutan, amarruok ekoizpen esferan errentagarriak diren enpresen kontra ere antolatzen dira. Horregatik, finantza mundua fikzio hutsean oinarritzen dela esan daiteke hein handi batean, ez baitio zirkuitu ekonomiko materialean sortzen den balio zein aberastasunari zuzenean erantzuten, eta burbuila erraldoiak puzten ditu, GameStopen kasuan ikus daitekeen bezala.



DAVIDEN TIRAGOMA

Finantzen marrazoek arriskua gutxitze-ko egiten dituzte epe motzeko eragiketak, eta errentagarritasun esfera horretan posible da zenbait enpresak egun gutxiren buruan galera itzelak izatea. Kontrako efektua, ordea, ia ezinezkoa da horren denbora-tarte laburrean; ia ezinezkoa. Burtsan kotizatzen duten enpresen artean begiratuta, broker handientzat erraza da galerak izanzen dituztenak identifikatu eta diru-kantitate handiekin apustu egitea, GameStop bideojoko denden katea kasu. Reddit plataformako *Wall Street Bets* foroan aritzen ziren zenbait gaztek jokaldia aurreikusitako eta modu koordinatuan GameStopeko akzio ugari erosi zituzten ordea, kontrako efektua lortzeko. Hala, bi asteren buruan, enpresaren akzioen prezioa %1.500eraino igo da, murrizketak jarri zituzten arte.

Igoeraren eraginez, GameStopen *short-selling* milioidunak zituzten erraldoiek ia hondoratzerainoko galerak ja-

san dituzte, eragiketa-modalitate horretan balizko galerak infinituak direlako. Melvin Capital funtsa izan da horietakobat, eta bere gisakoekin batera, "erregulazioak eta isunak" eskatu ditu akzio arruntak legalki erosi zituzten nerabeen ekintza geldiarazteko. Hori gutxi balitz, GameStopen zituzten motzeko salmentak aldeztatik aurretik erretiratzeko baimena ere eskatu dute, euren galerek esponentzialki biderkatzen jarrai ez zezaten. He-dabideetan purrustadak eta "krak" berri baten mehatxuak jaurti ostean, Wall Streetek onartu egin die eskaera, titanak salbatzeko bere arau propioak hautsiz. Lubakiaren beste aldean, berriz, institutu zein unibertsitateko gazteek dirutza irabazi dute GameStopeko akzioek gorantz egin duten artean.

KARTA-GAZTELUA

Azken finean, burtsa eta egungo finantza-sistema kapital metaketan oinarritutako gizartearen krisi sakonaren ilusio

gorena baino ez dira. Inbertsore trebeek dirua irabaz dezakete testuinguru jakinetan, inbertsore handien kontura gainera, azken egunotan ikusi den moduan. Baina epe luzera begira, finantzarizazioaren fikzioa mantendu ezinezko kartagaztelua baino ez dela ikus dezakegu. Geroztik eta gutxiago dira ohiko produkzio "errealaren" esparruan errentagarritasun tasak mantentzeko gaitasuna duten agente ekonomikoak. Horregatik egiten dute ihes finantza arlora, etekinak epe motzean biltzeko mekanismo erraza delako. Desertzio hori modu masiboan gertatzen den uneetan, baina, ekoizpen ereduaren oinarriak pitzatu ditzaketen burbuila zein krisi finantzarioak sortzen dira. Ondorioz, burtsan zirkulatzen duten zenbakiak aberastasun sozialean baliokiderik ez topatzeak sistema beraren desfasea uzten du agerian, bere barne-kontraesanetatik etengabe aurrerantz ihesean dabilen gizarte-antolamendua irudikatuz. ●



SUGE-LEUNA

Zu hobeto jateko!

Kolore nabarreko suge bat ikusi dute mendiko bidean kiribilduta. Masa berde bat besarkatzen du. Gelditu, behatu eta klik: argazkia atera diote momentuari. Bitxikeria hutsean gera zitekeen gertaera, baina irudia aditu bati bidaliko zioten. Suge-leunak musker heldu bat jatea ez baita eguneroko kontua. European halakorik hirutan baino ez da ikusi: horietako bi Euskal Herrian.

 IÑAKI SANZ AZKUE

Azaroaren 2a. 2020a. Udazkene-ko haize hegoak lagunduta, Silviak eta Iñakik Goizuetan mendi-buelta bat emateko parada probestu dute. 11:55ak dira Organbideko pistan barrena oinez sartu direnean. Hartxintzarrez eta lurrez osaturiko bidean, forma luzeko eta kolore nabarreko sugearen eta musker berdearen arteko kontrastea nabaria da lur grisean. Sugeak gorputzarekin eusten du bere jakia, eta ahoan ditu sartuak jada burua eta aurreko hankak.

Irailaren 24a. 2012. Silviaren eta Iñakiren behaketa baino zortzi urte lehengo, Joseba Abrisketak argazki bat bidali zien Aranzadiko herpetologoei. Amurrioko Aldaiturriaga auzoan zihola ezohiko irudi bat ikusi zuen: suge bat musker heldu bat jaten.

Zortzi urteko tartea duten bi argazki ditugu, beraz. Bi testigantza. Bietan hegoaldeko suge-leuna (*Coronella girondica*) ikusten da musker berdea (*Lacerta bilineata*) irensten. Bi kasuetan, udazkena da. Bi kasuetan, harrapaturikoak musker helduak dira. Goizuetan, arra. Amurrioren, emea.

Suge-leunak musker kumeak jaten

zituela gauza jakina da. Sugandilazale amorratua dela ere badakigu. Baita, noizbehinka, eta populazioaren araberak, ugaztun txikiak ere jaten dituela

Goizuetakoa
salbuespen gertaera
bati ateratako argazkia
da, ala uste baino
jarrera arruntagoa da
udazkenean suge-leun
heldu batek musker
berde heldu bat
egunez ehizatzea?

(saguak, esaterako); baina, orain arte, musker helduak jaten behin baino ez da dokumentatu suge hau, eta Robert Jooris herpetologoak egin zuen hori,

1995ean, Aveyronen, Frantzia.

Kasu guztietan sugeek estrategia bera erabili zuten. Muskerra harrapatu, eta ahotik hasi ziren hura irensten. Goizuetako irudian, ordean, bada pauso bat, Amurriokoan ikusten ez dena: sugea muskerraren inguruan dago kiribilduta. Izan ere, hegoaldeko suge-leunaren ehizatze modua hori da. Harrapakina gorputzarekin heldu eta estutzen du, ondoren ahotik barrena sartzeko haren burua. Beraz, litekeena da Goizuetako muskerra harrapaketaren hasierako fasean hartu izana argazkilariak. Hilik dagoela sentitzean, Amurrioren bezala, ez du horrenbeste estutuko, eta ahoan barrena sartzen jarraituko du.

ZU HOBETO JATEKO!

Joorisek Aveyronen egin zuen behaketa-egunetik zioen, ordura arte suge-leun bati ikusitako harrapakinik handiena zela ahoan zuen muskerra. Tamaina horretako suge batek halako musker bat jatea ez da ahuntzaren gauerdiko ezutula. Ahotik sartzeko eta irensteko, euren baraila lekutik ateratzeko gaitasuna dute. Hala, haien harrapakinak jan, eta berriro ere

bere lekuan jarri dezakete baraila. Zu hobeto jateko!

Ondoren ere izango zuen lanik: gorputzeko muskuluekin lagundu beharko zukeen muskerra barrura sartzen. Hala, askotan ikusi izan ohi dira sugeak, gizen-gizen eginda, motel-motel, ia ezin mugitu, jan duten harrapakinaren tamaina dela-eta, liseritzeko behar duten denbora hartzen.

TESTUINGURUA IRAKURRIZ

Muskerrarekin garbi daude gauzak: Amurrion eta Goizuetan musker berdea ezaguna eta arrunta da bi herrietan. Suge-leunak, ordea, bi espezie izan daitezke. Arabako herrian, bakarra ezagutzen da. Beraz, ez da dudarik: hegoaldeko suge-leuna da Amurriokoa. Haatik, Goizuetan oso bestelakoak dira gauzak. Bi suge-leun espezieak daude aipatuak bertan: Iparraldeko suge-leuna da arruntena, baina irudikoak ez du haren itxurarik.

Zortzi adituren begietatik pasa da argazkia: Euskal Herria, Galizia, Andaluzia eta Katalunia... Iberiar penintsula zeharkatu ostean, Frantziara ere iritsi da Goizuetako argazkia. Eta hala lortuko dugu emaitza: Amurrion bezala, hegoaldeko suge-leuna da irudian dagoena. Goizuetan urriagoa izan arren, hori da argazkilaria kamera bidez harrapatu duena.

Testuingurua aztertzeak ere laguntzen du identifikazioan: gune irekia, iratze-lekuaren ondoan. Egutera, beroa, harritsua eta orientazio onarekin. Mediterranean jatorriko espezie batentzat aproposa zen Goizuetako parajea.

Udazkena da. Bi espezieen ugaltza gaitza da. Beraz, haien aktibitatea asko jaitsi da jada. Goizuetako kasuan, gainera, azaroa da. Sugeak, behintzat, brumazioan (narrastien hibernazioa) beharko luke. Hego haizeak eta eguzkiak, ordea, narrastiei berotzeko aukera eman die. Biak haien babeslekuetatik ateratu dira, negu aurretik zerbait jateko esperantzarekin. Bi kasuetako batean, ordea, herpetologoei arreta ematen dien kontu bat dago. Orain arteko portaeretatik kanpo ikusten den jarrera bat. Amurriokoa, eguzki orduari erreparatuta, goizeko 6:50etan ikusi da. Arrunta da hori: hegoaldeko suge-leuna gautarra baita, baina egunsenti zalea ere bada. Ikerketek diotenaren arabera, suge-leunak eguneko aktibitatea duten espezieak gauez harrapatzen ditu, batez ere haien babeslekuetan ezkutatuta daudenean. Egunean zehar, ordea, suge-leuna ezkutatu egiten da.



Josu Abrisketak 2012an Amurrion atera zuen argazkia.



Iñaki etxeberria Aranazek 2020an Goizuetan ateratakoa. Azken honetan, suge-leunak kiribilduta du bere harrapakina, Amurriokoa ez bezala. Zergatik ote?

Goizuetako gertakizuna 11:55etan behatu da, ordea. Eguerdian. Eta hor sortzen da galdera: Goizuetakoa salbuespen gertaera bati ateratako argazkia da, ala uste baino jarrera arruntagoa da udazkenean suge-leun heldu batek musker berde heldu bat egunez ehizatzea?

Nork jakin, Euskal Herriko parajetatik barrena goazela egindako behaketaren batek argituko ote dizkigun suge-leun ilunzalearen ezkutuko mis-

terioak; edota, kontrara, zientziak horrenbeste maite duen hori egiten jarraituko ote duen: galderak airean uzten, gure begiak erne egon daitezen...

Zu hobeto ikusteko. ●

OHARRA: Erreportaje hau *Boletín de la Asociación Herpetológica Española* aldizkarian argitaratzeaz den artikuluko zientifikoan dago oinarritua. Artikulu horren egileak dira Sanz-Azkue, I., Etxeberria-Aranaz, I. & Tellechea-Iraola, S.

SOZietateen GAINeko ZERGA

EAEko 22 enpresa nagusiek zegokiena baino 225 milioi euro gutxiago ordaindu zuten

ELA sindikatuak enpresa nagusien 2019ko kontu ofizialak aztertu ditu (informazioa dagoen azken urtea), baita horien ikuskaritza txostenak ere. Horien arabera, EAEko 22 enpresek 1.295 milioi euroko irabaziak izan zituzten. Hala ere, enpresa horien guztien artean 98,7 milioi baino ez zituzten ordaindu Sozietateen gaineko Zergan. Hau da, 22 enpresa horien tasa erreala %7,6 izan zen. Salbuespenik gabe %25eko tasa aplikatu balitzaie, ogasunek 225 milioi euro gehiago jasoko lukete.

 **ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA**  **IREKIA.EUSKADI.EUS**

ELako idazkari nagusi Mixel Lakuntzak azpimarratu duenez, "enpresa handiek ez dute ia ezer ordaintzen; jasotzen dituzten 10 euroengatik euro bakar bat ordaintzen dute". Kasu bereziki deigarriak eta salagarriak daudela dio sindikatuak, hau da, Sozietateen gaineko Zergan euro bakar bat ere ordaintzen ez duten enpresak: Petronor (135 milioi euroko irabaziak dituen); Tubacex eta Bridgestone (11,5 milioiokoak); Pepsico (16,5 milioiokoak); eta GKN (8,3 milioiokoak), bes-

teak beste. Beste enpresa adierazgarri batzuek ere oso zerga gutxi ordaintzen dituzte beren mozkinetik. Horren adibide dira Mercedes Benz (%10,4); ITP (%4,6); CIE Automotive (%5,4); Aernnova (%7,6); Kutxabank (%4,6); Euskaltel (%11,1); edo Gasca (%0,3).

Lakuntzak salatu du gobernu eta patronalak eskutik helduta doazela. "Auzolana" bakarria Eusko Jaurlaritzaren eta patronalen artekoa da, enpresa handiek zergak ez ordaintzeko egiten duten elkarlana, hain zuzen ere". Bere hitzetan, en-

presa handiak dira fiskalitatea arautzen dutenak: "Euskal lobbya dira, eta hori etikoki eta sozialki onartezina da". Zentzu horretan, gehitu du: "Ez da batere albiste ona diru nahikorik ez biltzea osasungintzarako, zaintza sektorerako, hezkuntzarako edo enplegua sustatzeko". ELAk uda baino lehen premiazkoa den zerga-erreforma abiatzea exijitu du, eta horretarako bilerak eskatuko ditu lehendakariarekin, ahaldu nagusiekin, EH Bildurekin eta Elkarrekin Podemosekin. Datozen hilabeteetarako ere mobilizazioak iragarri ditu.

IBERDROLA ETA INDITEX

"Badira beste enpresa batzuk gure lurraldean jardun, mozkin-maila handia izan eta ia zergarik ordaintzen ez dutenak. Horren adibide argiak dira Iberdrola eta Inditex taldea" azaldu du ELAk.

Iberdrolak, "euskal erakundeek adibide gisa aurkeztu duten enpresak, 2019an 2.800 milioi euro baino gehiagoko irabaziak izan zituen, baina 36 milioi euro baino ez zituen ordaindu Sozietateen gaineko Zergan, hau da, irabazi guztien %1,3. Zerbaiten adibidea bada, jardunbide fiskal txar baten adibidea da", salatu du ELAk.

Inditex taldeak (8 markaz osatua dagoena, tartean Zara), "10.400 milioi euroko irabaziak izan zituen 2019an, eta ez zuen euro bakar bat ere ordaindu Sozietateen gaineko Zergan. Inditexen jabe nagusi Amancio Ortegak erakundeei egindako dohaintzak erabiltzen ditu bere irudia garbitzeko. Hobe litzateke lortutako irabaziengatik zergak ordaintzea".

ELAk eskatzen duen %25eko gutxieneko tasa efektiboa aplikatuz gero, Iberdrolak 703 milioi ordaindu beharko lituzke, Sozietateen gaineko Zergan ordaindu zituenak baino 667 gehiago. Inditex taldearen kasuan, 2.600 milioi lirateke.

KOOPERATIBA HANDIEK IA ZERGARIK EZ

"Aipamen berezia merezi dute aztertutako kooperatiba-enpresek, hauek ez dutelako ia zergarik ordaintzen. Hala, Ampok ez du euro bakar bat ere ordaintzen irabaziengatik, Danobatek ere ez (%0,1 bakarrik), eta Irizarrek egindako ekarpena oso txikia da (%4,9). Kooperatibek Sozietateen gaineko Zergarik ez ordaintzea onartezina da", azpimarratu du sindikatuak. ●

PETRONORREN, 2018an Espainiako erregea eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak. 2019an 135 milioi euroko irabaziak izan zituen eta ez zuen euro bakar bat ere ordaindu Sozietateen gaineko Zerga.



Haurrei euskarazko izenak jartzea debekatu zuen Cadena Eleta apezpikuak kalea du Gasteizen

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

1910 urtean, Gasteizko gotzain José Cadena Eletak debekatu egin zuen haurrei euskarazko izenak jartzea. Sari moduan, elizgizon euskarafobo honi agintari frankistek Gasteizen kale bat eman zioten Florida parkean bertan 1960ko hamarkadan. Gaur egun ere bertan dugu gure kolonizazio saia-keren isla?

José Cadena Eleta Pitillasen jaio zen, Nafarroan. Ikasketak Iruñeko apaizte-
gian egin zituen, eta zuzenbidea ere ikasi
zuen Zaragozako unibertsitatean. Biur-
rungo eta Agoitzeko apaiz izan ondoren,
Espainiako hainbat hiritan ibili zen. Eusko
Jaurlaritzaren webgunean bere eliz-bizitza
errepasatzeko aukera badugu ere, ez da
aipatzen pertsona horrek 1910eko otsailaren
3an agiria plazaratu zuela haurren bataioetan
euskarazko izenak debekatuz.

Bera hil eta mende erdira, Gasteizko
Luis Ibarra alkate frankistak bere ize-
na eman zion katedralaren ondoko ka-
leari. Virginia López de Maturanak *La
construcción del imaginario simbólico
en Vitoria durante el Franquismo* lanean
pasadizo hori bere testuinguruan kokatu
du. Honela dio:


"Cadena y Eleta Gasteizko apezpiku
izan zen 1905 eta 1913 bitartean, eta
kale baten izena eman zioten. Euskal his-
toriografia orokorrean, José Cadena y
Eleta bereiziki egin zen ezagun EAJre-
kin izan zituen enfrontamenduengatik,
besteren artean, bataioetan euskarazko
izenak debekatzen saiatzeagatik. Zen-
tzu honetan, pentsa daiteke 1960ko ha-
markadan pertsona honi kale bat ema-
nez Udalak Eliza espainiarzalea babestu
nahi izan zuela euskal abertzale katoli-
koen aurrean, erregimenarentzat eus-

kal elizaren abertzaletasuna arazo iturri
bihurtzen ari zen garaian".

Agintari frankistek aitzakia gisa ba-
liatu zuten Cadena 1907an katedrala
berritzeko lanak hasi izana. 1913an ge-
rarazi zituzten lan hauek, eta 1946an
berrekin ostean, Francoren presentzia-
rekin amaitu zituzten 1969an. "Cadena
y Eleta kalea justu katedrala zegoen le-
kuan egoteak bere omenaldi izaera ema-
ten dio", dio ikerlariak.

Mahai gainean jarri behar da, Pitilla-
sen jaiotako apaiz euskarafoboa 1918an
hil zela eta handik hilabete batzuetara
Vatikanoak baliorik gabe utzi zuela hau-
rrak euskal izenez bataiatzea debeka-
tzen zuen agindua.

Noiz arte mantenduko dugu euskal-
dunok gure hizkuntzaren aurka hain na-
barmen egin zuen pertsona baten ome-
nezko kalea? ●



Basamortuko ekaitzerako aterki mediatikoa



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Persiako Golkoa, 1991ko otsailaren 28a. Golkoko Lehen Gerra amaitu zen, AEBak buru zuen koalizioaren garaipenarekin. Gatazka hilabete batzuk lehenago hasi zen, abuztuaren 2an irakiarrek Kuwait inbaditu zutenean. Koalizioaren bonbaketak airetik eta uretik hasi ziren 1991ko urtarrilaren 17an eta, azkenik, *Basamortuko Ekaitza* operazioa amaitzeko, otsailaren 24an ekin zioten lehorreko erasoari.

Han eta hemen irakurri eta entzuten da oraindik Golkoko Lehen Gerra izan zela telebistaz eman zen lehen gatazka, frontetik albisteak zuzenean transmititu ziren lehen aldia. Alejandro Pizarroso historialari eta kazetariaren ustez, aldiz, “ez zen gerra telebisatua izan, agian telebista asmatu zenetik izan diren gerra guztien artean telebistaz gutxien emandakoa izango da, munduko telebista kate guztietako programazioan orduak eta orduak bete zituen arren”.

Zaila da informazioa frontetik zuzenean iristen zela sinesten, gerraren transmisioaren eskusiba ia erabat CNN kate estatubatuarren esku zegoela eta Irakeko medioei informazioa kanpora ateratzeko aukerak eten zizkietela jakinda. AEBek ez zuten nahi Vietnamen gertatutakoa berriz gertatzea. Han, nazioarteko medio akreditatu guztiek aukera zuten informazioa zuzenean Vietcongetik nahiz AEBetako armadatik jasotzeko. Vietnamgo porrotaren kontakizun



iluna saihestu eta garaipen garbi eta azkarraren istorioa muntatu behar zuten. Bideo-jokoetakoak diruditen irudiz eta datu teknologiko eta zenbaki hotzez bonbardatu zuten iritzi publikoa: koalizioak 959.600 militar zituen, 2.000 tanke, F-117A Nighthawk edota F-4G Wild Weasel hegazkinak, AH-64 Apache eta AH-1 Cobra helikopteroak, Hellfire y TOW misilak... eta, horiekin guztiekin, jakina, eraso zehatz eta eraginkorrak egin zituzten soilik funtsezko helburu militarren kontra. CNNk ez zuen kontaktzen eraso indiskriminatuak egin zituztela biztanle zibilen kontra, otsailaren 14an bi misilek 400dik gora zibil hil zituztela Bagdaden, biharamunean dozenaka hildako eragin

zituztela Faluyako merkatu batean... edo bonbardaketek hondamen ekologiko izugarria eragin zutela: petrolioizko 300 aintziratik gora sortu ziren, 40 milioi tona lur kontaminatu zituztenak.

Golkoko Lehen Gerran komunikabideak arma estrategiko bihurtu ziren, gerra garbiaren kontzeptu berria indartzeko eta iritzi publikoak erasoei zilegitasuna eman ziezaien lortzeko. Juan Goytisolo (1931-2017) idazleak zera esan zuen 2003an, Golkoko Bigarren Gerraren atarian: 1991n bezala, ez da benetan gertatzen denaren irudirik izango, estudioan filmatutako eta efektu bereziak erantsitako bideo-gerra bat baizik”. ●



Erdi Aroko eraikinen mapa interaktiboa

Europako Ikerketa Kontseilua, *Petrifying Wealth* izeneko proiektuaren bidez, bisore kartografiko irekia prestatzen ari da, Europa hego-mendebaldeko Erdi Aroko egiturak biltzen dituen. Mapa interaktiboa XI., XII. eta XIII. mendeetako Iberiar penintsulako, Italiako eta Frantzia hegoaldeko 17.000 egi-

tura eta eraikinek osatzen dute: galtzadak, gotorlekuak, eraikin erlijiosuak...

Oraingoz, publikoak galtzadak eta bi-deak ikus ditzake mapan, baina proiektua amaitzean elementu guztiei buruzko informazio sakona eskura izango da, horiei buruzko datu-baseekin lotura zuzenean eginez. ●

Praktika txiki batetik kontatutako ereduak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Hedabideetan ikusten ditugu gobernuek eta agintariak sarritzen dituztela bankuak, arropa-kateak, petrolio-, gas-, elektrizitate-enpresak... Handiak. Beti handiak. Handiek diru asko mugitzen baitute. Handiek inbertsio arrakastatsuak egiten baitituzte. Handiek enpresa eredugarrienak baitituzte. Batzuen ikuspegiko arrakasta eta ereduak dira. Baina non geratzen dira lan produktibo eta erreproduktiboari beste ikuspegi batetik begiratzen diotenak? Nork ikusarazten ditu, adibidez, Ekonomia Sozial eta Eraldatzailearen bueltan dabilzan enpresak? ARGIAk, bera ere Olatukoop sareko kide, lantoki hauek ulertzen ditu eredugarri eta irakurleari horiek ezagutzera emateko asmoz jarri du martxan, Olatukoopekin elkar-lanean, "Esperientzien kutxa" artikulu sorta.

Interneten zabaltzen dugu, astean behin, Olatukoopeko kide den proiektu baten esperientzia. Helburua ez da proiektu horren antolaketa osoa eta zirrikitu guztiak azaltzea. Esperientzia bat kontatzea da asmoa. Taldean egiten duten eta harro dauden zerbait, ondo funtzionatzen diena, baliagarria zaiena eta jendeari kontatu nahi dietena. Hiritik At taldeak, adibidez, azaldu du nola garatu duten lan-orduen kontrola eramateko sistema bat lan denborari

neurria hartzeko. Ulertzen baitute "lanak ez duela bizitzaren zati handiena hartu behar". Aztiker kooperatiban, lan-banaketak hiru-, sei-hilabete behin egin ohi dira eta malgutasunez jokatzeke aukera dute lan batetik bestera. Garrantzia ematen diote plano emozionala eta arrazionala bereizteari eta diote, "korapilo asko askatzen" dituela lan-kargetan erantzukizun pertsonala eta kolektiboa bereizteak. Ezin konta ditzakegu hemen esperientzia guztiak, baina horretarako duzue argia.eus/esperientzien-kutxa helbidea.

"Esperientzien kutxa" atalak azaleratu nahi ditu Ekonomia Sozial eta Eraldatzailearen bueltan dabilzan enpresa horietako indarguneak. Bizitza erdigunean jarri eta enpresa eredu jasagarriak bilatzen dituztenei nolabaiteko pistak eman. Jendea zertan dabilen erakutsi. Autoformakuntzarako oso baliagarria dela diote Olatukoop sareko kideek. Balio baitu langileen artean praktika zehatz horiez hitz egiteko, akaso beste pauso bat emateko edo, gutxienez, erreferentzia batzuk hartu, proiektu horri aurpegiak jarri eta sarea josteko.

Teoria beharrezkoa da eta teorizatu beharra dago. Baina paperak denari eusten diola aspaldiko esaera da eta praktika batek, sarri, gehiago erakusten du orrialde mordo batek baino. ●



Tapuntu kooperatibak zaintza espazioari buruzko esperientzia kontatu du.

ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arazoi hauek eman dituzte egun hauetan Argia Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Egunerokotasun handia eta garrantzitsuak diren gai ikusezinak agertzen direlako, seriotasun, zintzotasun eta sakontasuna oinarrian izanik".

Donostiako Maria

"Iritzi-artikulu interesgarriak direlako, baita euskara ikasteko ere".

Donostiako José Ignacio

"Sarean argitaratutakoa jarraitzeko ohitura dudalako eta momentuan ekonomikoki nire ekarpena egiteko aukera dudalako".

Andoaineko Alazne

"Pentsamendu globala duen eta euskaldunoi zuzentzen zaigun proiektua delako.

Bestetik, profesionalki jardunez modu berritzailean lan egiten duten profesionalak atzetik daudelako eta egun eskura daukagun informazio kantitatearen aurrean testuinguraturiko, kalitatezko eta jatorri esanguratsuko informazio aberasgarria jasotzeko aukera eskaintzen delako".

Mutrikuko Ainhoa

LUARRA EDO SIMAURGINTZA MINETAN



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Teknika berri baten itxurarekin etorria da, baina aspaldian egiten da gurean. Kanpotik ekarritakoa hobea delakoan makina bat lan egiteko erak galdu dute hemengo berezko izena eta, kanpoeder edo kanpo-arrosa, gozo asko hartu ditugu kanpotarren hitzak; arrotzek, arraroek, ezezagunek gehiago balio balute bezala. Ulergaitzak txoratzen gaitu eta gure amonaren amonak egiten zuena adierazgaitza zaigu, eta txoramenari men, erdarek lelotzen gaituzte.

“Luarra” hitzarekin gertatzen zait niri. Zerainen ikasi nuen. Guretzat simaurra ontzea dena han luarra egitea da. Berritu dezagun simaurgintza. Aziendari ukui-luan, barrukian, kortan edo abaroa bilatzen duen aterpean inaurkina jartzen zaio. Inaurkina landare baten hondakina edo hondarra da: orbela, garoa, arbazta, zaborra, belar zaharra, lastoa, arto-zuztarra, txirbila, zerrautsa eta abar. Inaurkina lehortuta zabaltzen da aberearen etzalekuan, azpi lehor, harro eta gozoa izan dezan; horretarako aurrez dagoen inaurkin eta abere gorotz eta pixa nahasketa kendu eta garbitu egiten da. Horri “azpiak egitea” esaten zaio. Kendutako horri dagoeneko “simaurrea” esaten zaio, eta hemen hasten zaigu nahasmendua.

“Simaurrea” hitzak bi gauza zeharo desberdin adierazten ditu: batetik azpietatik atera dugun gaia eta bestetik lurrak



ongarritzeko erabiltzen dena. Lehenari, aberearen etzauntzatik biltzen dena, kaka soilarekin ere nahasten da, eta: gorotza, gortatxa, pustila, kortaitza eta satsa ere esaten zaizkio. Aparteko izenak dituzte hurbilenetik ezagutzen ditugun animalien kakek: geurea kaka edo egikaria; eta asto-pustila, zalkin, beikorotz, arkorotz, altxirri, urde-gorotz, arkin, pekorotz, ahuntz-gorotz eta abar. Horiek inaurkinarekin nahastuta eta etzalekuan azpiak eginda ateratakoan, simaurra da.

Simaurrea hori ez da, gehienez, zuzenean ongarri gisa erabiltzen. Ondu egin behar da. Simaurra luar bihurtu behar da. Hori simaurtegia, luartokian, samats-tokian, simaur-pilan, sats-metan egiten

da. “Sindika” ere esaten zaio toki horri. Simaurra ontzeko bide ugari dago, baina maizenik bi erabili izan dira: soilik simaurra bera, lehen bi edo hiru ilargitan irauliz edo simaurra beste hondakin organikoren batekin (otea batez ere) geruzatuta pilatu eta berdina irauliz. Lehen bide horri segika dator nahasketa, hasierako azpi atera berriari eta amaierako onduari, ongarriari, berdina esaten zaie: simaurra.

Gaur egun “simaurrea konpostatu” esaten da. Konposta, erdaretatik jan dutenen joera. Minik handiena nekazaritza ekologikoan ari direnek erabiltzen dutenean ematen dit, lurraiekiko lotura eta kultura gehien zaintzen dutenek, alegia. Geruzatan ondutako simaurrari “luarra” esaten zaio, nik ez dut beste izenik ezagutzen. Hortik, eskala txikian egiten denari ere “luarra” esan behar zaiola uste dut.

“Samatsa” ere esan dakiok, baina inaurkinekin ez besterekin egiten da. “Matuka” izena ere hor dago, baina, bera egiteko, simaurra lurraekin nahastu behar da. “Lurrustela” ere esaten diote zenbait hiztegiek, baina lurrustela izakituta edo azalaitzurtuta biltzen den belarra eta lurra onduta egiten da. “Lokarda” ere hor dago, baina hori urak bazterren batean pilatu eta usteldu den landare zaborra da.

Konpostik ez, luarra bai. Konpostetik ez, luartokia bai. Simaurra konpostatu ez, simaurra luartu bai. Ze demontre! ●

Zure osasuna zaintzeko garaia da. Bertokoa eta ekologikoa kontsumitzeko garaia da.

Euskadiko Elikagai Ekologikoak
Alimentos Ecológicos de Euskadi

UNDABASO

PINU ETA EUKALIPTO ARTEAN,
HARIZTI MISTOAREN IRLA

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Ekosistemak berreskuratzeko lanean dihardu Lurgaia Fundazioak 2002an sortu zenetik. Jardun horretan, Muxikako Ibarruri inguruko hainbat lur-jaberekin hitzarmena sinatu eta Undabaso izeneko parajeen bertako basoa berreskuratzen hasi ziren 2008an. “Bi hektarea ingururekin hasi ginen, eta hortik pixkanaka handitzen joan da proiektua”, dio Sergio Gallego Mazarias fundazioko kideak. Gaur egun, dagoeneko 115 hektarea kudeatzen ditu taldeak bertan, eta beste 48 erosteko diru-bilketa kanpaina abian dute orain. Helburua lortzen dutenean, Bizkaiko bigarren harizti mistorik handiena izanen da Undabasokoa. Altxorra pinu eta eukaliptoek geroz eta leku gehiago hartzen duten Urdaibaiko Biosfera Erreserban.

DIRU BILKETA AZKEN TXANPAN

Eukalipto landaketa gehiago ekiditeko eta baso mistoa berreskuratzeko helburuarekin abiatu zuen egitasmoa fundazioak, eta ideia berberarekin jarri du orain martxan diru-bilketa. “Ez dugu haritza soilik landatzen, 35 espezie jartzen ditugu. Haritza da agian garrantzitsuenak, baina ez bakarrik”. Baina, nola egin dute lurrak nagusiki pribatuak diren inguruan bertako basoaren proiektua martxan jartzeko? Lurrak egitasmora batzeko bi modu izan dituzte: erabilpen lagapena egin diete zenbait jabek, lur horiek kudeatzeko aukera soilik emanez fundazioari, eta beste zati batzuk, berriro, erosi egin dituzte. “Bigarren modu hori nolabait ‘seguruagoa’ da, etorkizunean Lurgaiarekin edozer gertatzen dela ere, lurrak naturaren kontserbaziorako beste entitate batentzat izanen liratekeelako”.

Izan ere, basotik etekin ekonomikoa ateratzeko asmorik ez izatea garrantzitsua da honen kontserbazioari begira.



LURGAIA.ORG

Lurgaia Fundazioak
Muxikan 115 hektarea
lur kudeatzen ditu eta
beste 48 erosteko
diru-bilketa kanpaina
du abian lurgaia.org-en.
Eukalipto landaketak
ekiditea eta baso mistoa
berreskuratzea du helburu.
Irudian, auzolanean
landaketak egiten.

Horregatik, diru bilketatik lortzen duten dirua lurrak erostera bideratuko dute. lurgaia.org webgunean egin daitezke ekarpenak: 25 euroekin, adibidez, 75 metro koadroko lursaila eros dezakete. Otsailaren 28ra arte egonen da martxan, printzipioz.

LANDAKETAK AUZOLANEAN

Landaketak boluntarioekin eta auzolanean egiten saiatzen da fundazioa, jendeak haien lana ezagutzeko aukera dutelako modu horretan. “Ekintza horiek balio handia dute, herritarrek ikusten dutelako zer egiten dugun, zertarako eta nola. Gainera, sentsibilizaziorako eta natura zaintzen ikasteko modu polita da”. Dena den, landaketa guztiak ez dituzte boluntarioekin egiten; jasotzen dituzten diru-laguntzei esker fundazioko kideak eta profesionalak ere aritzen dira lan horretan.

Herritarrek basoaren kudeaketarekin geroz eta kezkatuago daudela uste du Gallegok, horren erakusle da bai Bizkaian baita Gipuzkoan ere gaiaren bueltan sortzen ari diren taldeak. Administrazioetik, ordea, ez du kezka bera sumatzen: “Herritarren eskariarengatik bada ere, hasi beharko dira haiek ere mugitzen noizbait. Mugimenduren bat sumatzen da, baina ez behar lukeena bezainbestekoa”. ●

Atzerrian lurra garratz

BIDAIA BAT ESAN NAHIETARA

Aurora Mora 40 urteko aktore kolonbiarrak lau urte daramatza Euskal Herrian. Performance baten estreinaldiaren bezperan notizia jasoko du: ama hil egin da. Orduantxe hasiko dira galderak.

 AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE  AINHOA RESANO

Bidaia batek hasten du migrazioaren bidea, baina noiz lur hartzen du? *Atzerrian Lurra Garratz*. Artedrama eta Huts teatroa galderak pausatzeraz datoz berriro ere, antzerkia erakusketa hutsera mugatzetik urrunago doazen helburu eta filosofiak hartuta. Laura Penagos aktorearen ikuspegi zein bizipena izan dute abiapuntu, bere bizitzan oinarritutako fikzioa sortuz. Migrazioak, deserriak, exilioak betidanik interesatu zaizkio Ander Lipusi, aipatutako konpainietako kidea eta obra honetan Penagosekin batera aktore ariko denari: “*Etxekoak* lanean guk euskaldunok atzerriarekiko dugun begirada jorratzen genuen. Hemen, ordea, atzerritarrek gurekiko duten begirada jorratuko dugu”.

Hala ere, gai nagusia dolua da, protagonista amaren heriotza, hamaika gai eta emozioen bidaian murgiltzen dena: migrazioa, zaintza, deserria eta herria, indigenak eta herri zapalduak, hizkuntza gutxituak, kolonizazioa eta arrazakeria, gatazka eta indarkeria, eta bizimodu oso baten bizipen eta nahasmen emozionalak.

Lipus eta Penagos eszenatokian eta Amancay Gaztañaga, lehen aldiz Artedramarekin, zuzendari paperean. Azken honek kontatuta, hamaika bidelagunen gaitasunek lagundu diete ertzak borobiltzen: “Nire unibertsoa ekarri nahi izan dut taldera, nire ibilaldian ezagutu ditudan pertsonak; Barbara, esaterako”, adierazi du Gaztañagak. Barbara Rassori buruz ari da, obra honetako jantzien arduradunaz. Miren Amurizak testuaren “orrazketa” egin du eta bere ikuspegiarekin taldekideei argitzen lagundu diela gehitu du zuzendariak. Ibon RG soinuari, Arantza Flores argiztapenean, Mikel Unamunzaga teknikan, Iñaki Ziarrusta (Atx Teatroa) eszenografian, Iasone Parada eta Irantzu Azpeitia ekoizpen eta banaketan, eta Ainhoa Resano argazkiekin.

Lantaldeak estreinaldia otsailaren 5ean Luhuson egiteko asmoa zuen, baina garaia garai, Frantziak jarri dituen neurri berrien harira, ezin izango dute aurrera atera. Estreinaldia, beraz, Gipuzkoara lekualdatu dute, berez bigarrena izango zen emanaldiak leku hartuta. Otsailaren 12an, Oñatiko Santa Ana antzokian.

NORK KONTATU, NORI ENTZUN

Esan bezala, atzerritarrek euskaldunekiko duten begirada jorratzen du antzezlanak. Horretarako ezinbesteko izan dute migrazioa lehen pertsonan bizi duen norbaiten testigantza jasotzea eta oholtzan bere lekua ematea. “Laura eta Iñigo [Ander Lipus] ikastaro batean topatu ziren eta Laurak bere testuak erakutsi zizkion. Lipusek segituan ikusi zuen ezin zela kaxoi batean geratu, kontatu behar zen istorio bat zela. Lauraren mundua zoragarria da”, dio Gaztañagak. “Antzezlea naiz, hamabi urte daramatzat Euskal Herrian, eta hazten eta garatzen lagundu didaten hainbat bizipen izan ditut. Urte hauetan antzerkian profesionalki aritzeko aukerarik izan ez dudan arren, inoiz ez dut etsi”, kontatu du Penagosek. *Atzerrian Lurra Garratz*ek lasaitasuna eta poza ekarri dizkiola gaineratu du, baita erronkak ere: “Asko gustatzen zaizkit erronkak, aske eta bizirik sentiarazten bainaute. Izateko, egiteko eta partekatze aukera honek sekulako konfiantza eman dit”.

Emakume, indigena eta migratzaile gisa definitu da Penagos, antzezlanaren

ardatzak diren ezaugarriak. Zuzendariak kontatu duenez, argi zuten hasieratik istorioa emakumeek kontatu behar zutela: "Fikzioan egiten den %92a gizona sortua da. Nahiz eta emakumea protagonista izan, gizona buruetatik ateratzen dira. Beharrezkoa da istorio hau emakumezkoek sortzea. Guk sortu ditugu eta gure gaiak dira". Honekin, emakumearen papera zein den ere aztertu nahi izan dute, nola bizi den zoria ez den emakume sortzaile bat Euskal Herrian, ba ote duen lekurik. Era berean, migrantea. Profil hori betetzen duen inork sorkuntza artistikoan hitza hartzea ere ez da ohikoa: "Zuritasun honetatik kontatzeko trebeziarik izango ez genukeen istorio bat kontatzeko aukera eman digu". Erraza ote da euskaldunon artean integrazioa kanpotik datorrenarentzat? Zertan

egiten du lan emakume migrante batek? Nork zaintzen ditu gure herriko aiton-amonak? Duina da hogeita lau orduz gure familiarrak zaintzen egotea?

Aurora Mora pertsonaia nagusiak aktorearen bizitza darama oinarrian. Penagos, Kolonbiako antzerki eskolatik dator. Euskal Herrian hamaika urte daramatza bere lekua bilatzen, beste eskolak probatzen eta lana bilatzen saiatzen: "Zalantzarik gabe, kontatzen ari garen historian badira nire izaeraren arrastoak eta egiak, bai Kolonbian eta bai Euskal Herrian bizi izandakoen aztarnak", kontatu du protagonistak. "Liberazioa izan da, hainbat urtez neure barnean eta isilean eraman dudana historiaren zati bat askatu dudalako. Antzerkian kontatu ahal izatea barnean nuen ur bildua askatzea izan da, beharrezkoa". Sormen

prozesuan ate batzuk zabaldu eta beste batzuk itxi egin dituela gaineratu du, eta lantaldeak konfiantza hartzen lagundu diola. "Kolonbiatik aldentzeak nire jaioterrian zer gertatzen den ulertzen lagundu dit, bere gizarte prozesuak eta bere mamia. Paradoxa bada ere, Kolonbian bizi nintzela, ez nuen bertan gertatzen zenaren kontzientziarik".

EUSKAL HERRIA ETA KOLONBIA

Jaiotzez kolonbiarrak bere egin du euskara, hala mintzatzen baita antzezlan osoan zehar: "Euskarak euskal kulturara hurbildu nau, bere mundu-ikuskera, bere historia, eta herri gisa dituen borroak eta erronkak ulertzen laguntzera", dio Penagosek. "Prozesu konplexu eta mingarria ere izan da, neure buruari, gure kulturari, gure arbasoei eta gure historiari aurrez aurre begira jarri eta mundua bera ikusteko eta pentsatzeko nire moduan eragin duena". Ikasketak "aberasgarria" izan da aktorearentzat, Kolonbia gehiago ulertzeko aukera eman baitio. 1492an kolonizatzaileak iritsi baino lehen, 90 milioi biztanle ziren Hego Amerikan. Espainiarrek eta portugaldarrek ia 85 milioi indigena desagerrarazi zituzten. Jatorrizko herriak esklabo bihurtu, torturatu eta lurra eta bere kultura lapurtu zizkieten. "Zer dute euskaldunek honetatik ikasteko? Zein da gure erantzukizuna?", galdetzen dute. "Kolonialismoak gure hizkuntza eta kultura desagerrarazi zituen eta horrek sortu zuen gure herrian bizi izan zen gerra. Nora begiratu behar dugu lapurtu digutena berreskuratzeko?", dio Penagosek. Kolonbiako egoera bortitza ere ekarri nahi izan dute antzokietara, azken 54 urteetan 220.000 lagunek galdu baitute bizia Kolonbiako gatazka armatuaren ondorioz.



Euskal Herriak bezala, Kolonbiak ere baditu bere borroka eta erronkak, eta horrek euskaldun bezala non kokatzen garen birpentsatzera eraman du Gaztañaga: “Askok sufritu dugun herria izan gara, baina ez bakarra. Kausa bidegabean aurkitzen den herritarrarena da geure buruez dugun irudia, baina ez gara kontziente zein pribilegio ditugun eta nondik ari garen lanean. Lan handia dago oraindik egiteko. Euskaldun eta emakume gisa zapalduak gara, baina badira zapalduagoak”. Antzezlanak zabaltzen dituen galderen artean migranteak migrante izateari uzteko aukera planteatzen dute. Noiz sustraitu daiteke toki konkretu batean? Zein da bere herria? Noiz lortuko du euskaldun titulua? Euskaldunek ere atzerriaz badakitela gaineratu dute, euskaldunak ere mundu honetan arrotz sentitzen direla. Globalizazioaren atzaparretan erori diren komunitatez eta gizajendeaz ari dira, desagerrarazi nahi dituzten eta desagertu diren kultura eta identitatez. Zuzendariak aitortu du antzezlanak bere pribilegioen kontzientzia hartzen lagundu diola eta “bakarrizketa ederrak” izan

dituela bere buruarekin: “Kanpo begirada horretatik, guri dagokigu ispilu lana egitea eta erakustea benetan zer den egiten ari garena migranteekin”.

“Liberazioa izan da, hainbat urtez neure barnean eta isilean eraman dudana historiaren zati bat askatu dudalako”


LAURA PENAGOS

LURRA ZAPALTZEKO GARAIA

Lana estreinatzeko ordua da. Emozioak hainbeste aldrebestu diren garaiotan ilusioa azpimarratzen dute, errespetua eta beldurra sentitzeari utzi gabe. Esan beharrik ez dago, egoerak berak

zertxobait handitzen dituela azken bi sentimendu horiek, eta zaildu eta bikoiztu egin duela egin beharreko lana: maskarak, bilera telematikoak, emanaldiak lotu eta mantentzeko zailtasuna, etorkizunarekiko kezka, hartu-emanik eza, edukiera murriztuak... Eta gutxi balitz, antzerkiak dituen berebiziko ezaugarriak ezabatu ditu. “Nik askotan pentsatu, sentitu eta esaten dut guk egiten dugun lana ez dela bateragarria COVID-19arekin, gure lana kontaktuzko lana dela”, dio Gaztañagak. Dena den, ia 40 emanaldi lotu dituzte jada, aurrez ezer aldrebesten ez bada, aurrera aterako dituztenak azarora bitarte.

Bidaia batekin hasi ditugu lerro hauek. Bidaia literala eta metaforikoa. Izan ere, Aurora Moraren gelan gertatzen da guztia. Egin behar duen obra entseatzen ari dela, dei bat jasotzen duenean. Errealitatea eta ametsen mundua nahasi egingo dira espazio horretan, eta hainbat pertsonaia pasako dira Moraren ondotik, guztiak Lipusek antzeztuak: Kepa, Auroraren mutil-lagun euskalduna; alzheimerra duen bere aita Eusebio; Auroraren ahizpa Esperanza;



bere ama eta komunitate indigenatik datorren Nayeli amona eta mamuak. Horiek izango dira, zuzenean edo zeharka, istorioa kontatuko dutenak. "Auroraren ezleku hori irudikatzen saiatu gara eszenan ere, bere barrua nola sentitzen den kanpoan. Saiatu gara istorioaren ikuspegitik, emakume baten istorioa izanda, gauza oso simple zein sakona sortzen: zein familia eta tokitakoa den, loturak apurtzea posible ote den, emakume artista bezala duen adinarekin zer espero den, nola bilatu edo ez lekua sistema honetan", dio Gaztañagak.

Hasieran aipatu bezala, galderak sortu nahi dituzte ikuslearengan: "Artea aukera da galderak zabaltzeko eta hori nahi dugu, direnak direla", dio Penagosek. Horrekin batera, batasuna eta konplizitatea espero ditu, euskal ikusleekin bat egitea eta pentsaraztea. Gaztañagak "gure begirada egozentrikoa" birplanteatzea espero du, beste irekitasun bat hartuko balu Euskal Herriko sufrimendua bera sendatzeko modua delakoan pertsona batzuei bertan lekua egitea. Ikusleak ondo pasako duela ziurtatu dute. ●



EMANALDIAK



Otsailak 12

OÑATI

Otsailak 19

ANDOAIN

Otsailak 20

MARKINA-
XEMEIN

Otsailak 21

ERRETERIA

Otsailak 26-27-28

DONOSTIA

Martxoak 2-3

BILBO

Martxoak 4

EIBAR

Martxoak 5

ZUMAIA

Martxoak 6

GERNIKA-LUMO

Martxoak 7

ARRASATE

Martxoak 12

BERMEO

Martxoak 13

BERRIZ

Martxoak 14

DURANGO

Martxoak 19

ZARAUTZ

Martxoak 23

HERNANI

Martxoak 26

ELORRIO

Martxoak 28

LEZO

Apirilak 10

AULESTI

Apirilak 16

ZORNOTZA

Apirilak 23

SOPELA

Apirilak 25

VILLABONA

Maiatzak 7

TOLOSA

Maiatzak 16

PASAIA

Ekainak 6

HONDARRIBIA

Ekainak 15

SANTURTZI

Azaroak 17

GASTEIZ



LIBURUA

Plikak zekarrena



DANI BLANCO

BIDAIA (H)ARIKETAK OIHANE ZUBEROA GARMENDIA GLARIA

DENONARTEAN, 2020

IGOR ESTANKONA

Iruña Hiria Poesia Sariketaren epaimahaia Nafar Ateneoaren Iruñeko egoitzan batzartu da. Ines Castiella Imaz andreak, Unai Pascual Loyarte jaunak eta Nafar Ateneoko euskara eleduna eta idazkari Josu Jimenez Maiak aho batez erabaki dute sariketara aurkeztu diren 18 idazlanetatik *Bidaia (h)ariketak* izenekoari lehen sari bakarria ematea. Plika irekita, honakoa da egilea: Oihane Zuberoa Garmendia Glaria. Epaimahaia osatzen dugunon iritziz, hizkuntza maila jasoko olerki-bilduma da, freskotasuna dariona eta kultur klasikoak jantzia; bidaia inizatiko baten barna garamatza, hausnarketa anitzak sortzeko egin eta sentimendu paradoxikoak ongi uztartuak agertzen dituen.


Atzokotutako modu zaharmindu ho-

rretan aurkezturik, bat ere xarmarik gabeko titulua daroan *Bidaia (h)ariketak* hau izan zitekeen literatur lehiaketa baten enegarren paperezko obramendua, baina hara non, Oihane Zuberoa Garmendia Glaria (Erronkarin jaioa, non bestela, 1993an) begitandu zaigu aurreikusi zitekeena eta ustebakoa, guria eta sendoa. Berak ere badio: "Mendia da desberdin oso;/ noiz begiratzen zaion./ Batzuetan maluta errime,/ besteetan sapa den haize".

Bidaia (h)ariketak errealista da, alegiazkoa da, zer da? Egunerokoa bihurtzen du poema errimatu, eta grekolatindarrak dakartza hitz lauz. Gauza da irakurlearen gogoan gezia bezala sartzen dela, eta ez dioela ezer berezirik, esan ez denik behintzat. Eite aski sinpleekin sa-

kontasun itzelak erakusten ditu, eta horretan datza bere meritua: entretenigarria da irakasgarria beste, eta delikatu indartsua. "Musa da/ ohetik altxa,/ kafea prestatu eta/ idazten hasteko eskusa".

Aforismoetan entretenitzen da uneka, eta errimetan eta hitzen hoskidetasunetan trabatu, eta badu joera eskapista bat –batez ere Grezia idealizatu batera– ez diona sarri poemari mesede egiten, baina liburuaren ahogozoarekin ari naiz idazten oraindik, eta hori seinale ona da. Gora-behera handirik gabeko poemario atsegin hau, *Bidaia (h)ariketak*, horixe dira, hariz lotutako ariketa zenbait. Modu hanpatuan ari da gauza txikien gainean, eta modu xumean heriotzaz, Egeoko irla txiki batean bilatuz kontinente guztien azalpena. ●



MUSIKA

Ibil bedi beltxarga beltza



BELTXARGA BELTZA IBIL BEDI

AUTOEKOIZPENA

XALBA RAMIREZ

Beltxarga beltza behin bakarrik entzutearekin nahikoa duzu Ibil Bedikoak zertan jolasten ari diren jakiteko. Pop arrunt eta normalea, ornamenturik gabea, efektismo-rik gabea. Otsailaren 26an kaleratuko dute, baina guk entzuteko aukera izan dugu jada, eta makina bat aldiz entzun ere dagoeneko.

Khruangbin taldeko Mark Speer-ek elkarrizketa batean zioen *out of the box* pentsatu ordez *in the box* pentsatzea gustatzen zaiola. Alegia, bide bat hartu eta hortik atera gabe beti beste buelta bat ematea. Ibil Bedi talde nafarraren lan hau aurrekoen antzekoa da. Bide berbera jorratu dute, nabarmendu beharreko berrikuntza edo apurketarik gabe. Hori bai, kantak landuagoak dau-
do edo behintzat sendoagoak dira.

Aukera lukete produkzio askoz ere txukunagoa egiteko: bateria apur bat garbiago entzun dadin denboraz kan-

poko kolpeak disimulatu eta kolpe erdi afinatu horien ordez programatutako soinuak erabili. Euskal talde gehienek egiten dute, akatsak disimulatu eta ez direna irudikatzeko, irratien eskariz-
edo. Baina Ibai Osinaga taldekideak berak grabatutako lanak bertute bihurtu du gabezia, eta naturaltasun eta apaltasun ederra esleitu dio lanari. Arima, diote batzuek.

Letretan dohaina erakutsi dute Osinagak eta Amets Aranguren. Gogoeta irekia bultzatzen dute eta euren prozesu pertsonalak kontatzen dituzte. Popean horren ohikoa den bigarren pertsona singularra da izenorde erabiliena, baina ez ni-eta-zu-ren ohiko maitasun harremanean. Helduagoak dira hitzen eta gaien aukeraketak, landuagoak irudiak.

Osinagak, ARGIA egindako elkarrizketa sonatuan (2.702 zenb.), euskarazko lanetan kritika gehiago eskatzen zuen. Begi gabeko harria izan daiteke

ordea, helburu batez esan eta besteaz hartu. Sarriegi mezulariaren kontra. Esan genezake, adibidez, *Orain bat gara* kantaren leloak Doctor Deseoren *Corazón de Tango* (edo besteren bat) gogorarazten digula gehiegi. *Lorerik gabe*-ren amaierako koruetan errazera jo dute eta gozoegi geratu zaie, pop donostiarretik gertuago, berezkoa zaien eguzkialdeko lurretik baino.

Esan genezake, eta esan dugu. Baina iritziok gehiago diote idazleaz taldeaz baino. Diskoa ederra baita poparen kutxaren barruan. Zintzotasunez egindako lana, melodia eder askorekin. *Enegarrenez zaindu dizkizut loreak* gisako kanta hipnotikoa edo *Egurrezko eskuotan* lasai bezain indartsua, Anari Alberdiren kolaborazio azpimarragarriarekin. Eta gainontzeko denak. Eskerak bideari, eta Ibil Bedi!

PD: Kazetariei oharra, autotunea ez da berrikuntza. ●



Dantza dezagun Reykjavik606

XALBA RAMIREZ JAIME BENEGAS

Boom zu pa tutu, tu tu pa pa taka, bum tzu pa pa pa. Abesteko modu asko dago, estilo bakoitzak berea, ahots bakoitzak berea. Eta letrarik gabeko kontzertuetan zer esanik ez. Musika elektronikoa eta jazzean ohikoagoa da ahotsik gabe aritzea, eta norberak jarriko dio tonua. Reykjavik606-ekoek izugarritzko maila erakutsi dute Dabadaban emandako kontzertu bikoitzean.

Erritmoa. Baxua ari da ohikoa baino indartsuago. Bonboa non, apala hor. Erritmoa. Ambienteak gehitu dizkio sintetizagailuak. Dantzatu al dezake gogoak? Erritmoa. Isilik aretoa, aulkietan itsatsita. Zutitzea hain arriskutsua ote? Kontrola bermatu behar da, estetikatik gutxienez. Erritmoa. Ezagutzen al duzu kanta? Ez, eta beti ez da behar. Eta *sample* hori? Disko zahar batean topatutako poeta afroamerikarra. Erritmoa, eta baxua ohikoa baino indartsuago.

Reykjavik606 ez dira Islandiakoak Donostiakoak baizik, eta urteak daramatzate elektronikaren eszenan erreferentzia lantzen. Kino Internacionalek

eta Borja Piñeirok osatutako bikoteak luxuzko gonbidatuak izan zituen azken lanaren grabaketan: *Endless Summer in Peckham* (Forbidden Colours, 2019). Bateria Carlos Sagi (Kalakan edo KHAMIGisako proiektuetan aritua) eta baxuan Xabier Barrenetxea. Kolaboratzaileen artean, Ishmael Ensemble saxoan eta Tenderlonius-ek rework batekin. Pena, hauek ez zirela zuzenekora agertu.

Gil Scott-Heronen *the revolution will not be televised* kanta sampleatuz ireki dute aretoa, eta gertatuko zen guztia iragarrita geratu da hasiera-hasieratik. NU-jazz edo UK-jazz deituriko estiloaren ildotik dabilta, azken lanetik aurrera. Sekula entzun ez duenarentzat, jazzaren hizkuntza jazzaren “ohiko” eremutik kanpo, elektronika, reggaea, duba, afro-beata, downtempoa eta abar eta abar. Ez dira pop-rockeko akorde progresioak erabiliko, baina ez dira jazzeko ohiko egiturak errepikatuko (solo txandakatuak eta abar).

Beren-beregi jazz ukitua eskainiko diote kontzertuari Sagik eta Barrene-

REYKJAVIK606

NOIZ: otsailak 6

NON: Donostiako Dabadaban

txeak. Erritmoa ardatz hartuta inprobisatuz. Nola da posible horren suabe eta horren indartsu aritzea? Bidaia hipnotikoan laguntzen dute Kino Internacional eta Piñeiroren sintetizagailuek. Begizta natural igaro da sampleak, soloak eta mozketak eskainiz, eta gure buruan batez ere Kamaal Williams-en oihartzuna: “Jazza kalean ikasi dugu guk”.

Reykjavik606 bikotea bakarrik geratu den unean aldatu egin da sortutako aura zoragarria. Bolumena apaldu eta nota disonante batzuek beste eremu batera eraman dute saioa. Edonola ere azken kantarako itzuli da Sagi-Barrenetxea urrezko bikotea eta kontzertuari amaiera itzela eman diote. Delorean zarauztarren hasierako kantetara igaro naiz, bonboek abiadura igotzearekin batera. Eta Euskal Herriko beste talde instrumental batzuk entzuteko gogoz, Rukula eta Sofa etorri zaizkit. Eta modan ez dagoena dantzatzearen plazera sentitu dut berriz ere. Beno, sentituko nuke ez banego maskararekin aulkira horren itsatsita. ●

Maidar Aizpurua Cuesta

WWW.ERLAITZA.EUS



ESKOLAN ETXEAN BEZAIN GOXO

“30 urte nituela egin nituen magisteritza ikasketak eta haurdun gelditu nintzen aldi berean, erdi erotuta ibili nintzen, nire semea non matrikulatu ez nekiela. Erlaitza bezalakorik ezagutu izan banu orduan ez nuen dudarik izaneren lehen kolpez halako batean matrikulatzeko ttikia. Baina amak, berriz ere, erakuspena eman zidan, heziketa etxean hasten dela azpimarratuz. Nik hurbileko tratua nahi nuen, zuzena, eta haurra goxo sentitzea, etxean bezala. Eta jada lortu dut, Erlaitzan bidelagun izan eta nire haurrak ere nirekin egonez,” irribarre ahoan kontatzen du Maiderrek.

“Umeen paradisia da Erlaitza eskola”

Urruñako erlaitzean hasi eta bertako baserri batean kokatzen da egun Erlaitza eskola. Irakaslerik gabe, bidelagunekin. Hori bera da Maider Aizpurua Cuesta (Irun, 1979). Formakuntzaz irakaslea baina ofizioz bidelaguna, haurren heziketa beste gisa batean burutzen baitute bertan. Askatasunean, errespetuan, bortxarik gabe. Proiektu orokorra ezagutzeko parada eman digu irundarrak. Bera joan den irailean hasi bazen ere, guztiz integratua dago dagoeneko, zoriontsu.

 AITZIBER ZAPIRAIN  IRANTZU PASTOR

Zer da Erlaitza?

Eskola euskalduna da. 2018ko abenduan sortu zen, hiru familiarekin. Sei umek hasi zuten bidea. Urruñako kanpin batean egin ditu lehen urteak, erlaitzean bertan. Leku zoragarri batean. Orain, aldiz, “Erlaitza berria” deitzen duguna Urruñako baserri batean dago kokatua. Eta jada, epe ttikian, seitik hamasei ume iza-tera pasa gara.

Umeen erritmoa errespetatzen duen zentroa da. Askatasun handiagoa, arreta, presentzia eta entzute aktiboa eskaintzen dizkiegu, leku eder batean. Beraien behar eta nahietatik abiatuta, ikaskuntza integrala eskaintzen diegu. Bi urte eta erdi eta hamaika urte bitarteko haurrekin lan egiten dugu. Nire ametsetakoa eskola da Erlaitza.

Zerk ezberdintzen du Erlaitza eskola ohikoa den hezkuntza zentro batetik?

Oinarria komunikazio ez-bortitza da. Heldua umearen bidelaguna da bere ibilbidean: ez du epaitzen ezta zigortzen ere. Errespetuzko hezike-

ta aplikatzen dugu. Ezinbestekoa da hori guretzako. Horrez gain, umeek askatasun osoa dute sei urte betetzen dituzten arte. Nahieran, jolas librean aritzen dira. Montessori materiala dugu eta tailerrak proposatzen dizkiegu. Proposatu, diot, ez baitira inposatuak. Sarri haiek berek eskatzen dituzte. Zientzia tailerrak, margoketa, letrak, zenbakiak... Haurrek berezkoa dute kuriositatea. Eta, horrez gainera, naturarekin kontaktu zuzenean egoteko aukera dute. Hau ere ezinbestekoa gure ustez.

Sei urtetik goiti, aldiz, Bernard Collot-en hirugarren motako eskolen pedagogia hartzen dugu oinarritzat. Eta haurren interesetik abiatutako ikasketa prozesua proposatzen dugu. Gurean ume bakoitzak bere proiektu pertsonala du. Bidelagunaren funtzioa proiektu hori burutzen laguntzea da. Berriki, akrobazia ikusgarri bat egiteko gogo zuen ikasleetako batek. “Nola egin dezakegu?”, galdetu nion berehala, eta orain horren antolaketan ari da. Ikusgarria idazten ari da, marrazkiekin osatzen, nire gorputza baliatzen du entseguetarako



"Erlaitza eskolan heldua umearen bidelaguna da bere ibilbidean: ez du epaitzen ezta zigortzen ere".

eta akrobaziak sortzeko... Horrez gainera lagunak batu zaizkio aurkezle lanak egiteko, beraz, zerbait pertsonala kolektiboa izatera pasa da. Horixe da Erlaitza.

Irakasle ez, bidelagun?

Bidelagunak garelako azken batean. Ondoan gaudelako. Irakasle formakuntza dugu bertako guztiok, baina, noski, formatzen segitzen dugu, beste edozein irakasle bezala. Hezkuntza maite dugunok, haurrekin aritu eta egotea maite dugunok, haurrak laguntzea dugu helburu, beraz, zenbat eta formatuago egon edo zenbat eta gehiago jakin, hobe.

Ekonomikoki eskuragarria al da familia "arruntentzat"?

Erlaitza ez da eskola elitista bat. Kuota aski baxua da. Izan ere, sarri hori leporatzen zaie gisa honetako zentroei. Erlaitzak argi zuen hasieratik eskuragarria izan behar zuela bertan sartzeko xedea zuen familia ororentzat. Eskola legal bat da, hori ere esan behar dut. Frantziako Gobernuak onartua duen eskola da, alegia. Bidelagunak, ordea, ez ditu hark finantzitzen, bertako familien kuotek baizik. Azken batean, ekonomikoki auto-

gestionatzen den eskola bat da eta hori zoragarria da.

Baina argi utzi nahi dut bertan gauden familiak jendartea ordezkatzan dugun familiak garena. Ez gara aberatsak. Guk adibidez, nire haurrak ere bertan daude, lehentasuntzat jarri dugu. Nahiago dugu besterik baztertu, gure haurrei aukera hau eskainiz.

Hezkuntzan aditu gisa zer diozu nagusi den hezkuntza ereduaz?

Ohartu nintzen sistemako eskoletan ere egin zitekeela horrelako zerbait, baina oso zaila da. Irakasle bezala prest egon zaitezke, baina talde osoak jarraitu behar zaitu. Eta gehienetan ez da hala izaten, beraz, sekulako pisua gelditzen da zure bizkar. Une hauetan, niretzako behintzat, ezinezkoa da. Ez du merezi. Nahiago dut nire energia Erlaitza proiektura bideratu.

Frogatua dago jada hezkuntza-eredu honek ere balio duela, emaitza onak ematen dituela. Maila akademikoaz ardua izaten dute batzuek, baina dudarik ez ukan, haurrak prestatuak ateratzen direla ondoren kolegiara eta DBHra pasatzeko. Sobera gainera. Oso ikasketa prozesu interesgarria da Erlaitzak es-

kaintzen duena, emaitza akademikoe-tatik harago. Maitasunean hezten dugu, errespetuan. Etxean jasotzen dute noski, baina zorionez gurean ere. Hezkuntza zentroak emaitza akademikoez gain, ongizatea eskaintzea oso garrantzitsua da.

Zein funtzio betetzen dute gurasoek Erlaitza eskolan?

Gurea bezalako proiektu batean gurasoen konpromisoa oso garrantzitsua da. Arlo pedagogikoaz ari naiz. Ildo berean, zentroarekin batera aritzeko konpromisoa hartzen dute. Horretarako formakuntzak eskaintzen ditugu urtero. Emozioen harriera eta komunikazio ez-bortitza lantzen ditugu besteak beste. Izan ere, Erlaitzan liskarrik dagoenean haurrekin batera jartzen gara bidelagun. Aterabideak haiekin batera bideratzen, adibidez. Eta etxean zigorren bidez aritzen badira ttikia galdu egingen da, ez du deus ulertuko.

Eskatzen den konpromiso bat da. Oso erraz eta modu politean parte hartzen dute gainera.

Erlaitza aurkeztu diguzu, baina zer da Erlaitza eskola zuretzako?

Umeen paradisia. ●



Tabernak ireki dituen epailea: “Ixo! Eta atera beste bat, primo!”



Bengoetxea atzealdean irribarrets, EAEko Auzitegi Nagusiaren bilera batean.

Luis Angel Garrido Bengoetxeak, atari-bileretan beti azken hitza izan ohi duen “3.B-ko magufoak”, Whatsapp-eko profilean “Maskara da tortura” idatzia duen *freedom fighter*-ak, Bilboko Muga tabernako barran eserita eman du tabernen irekiera azaltzeko prentsaurrekoa, ‘*sol y sombra*’ bat eskuan, ondotik pasatzen zaion jende guztiari aurpegia miazkatzen dion bitartean: “Demagun, adibidez, Bizkaian %2.000 igo dela faxismoa. Eta banator

ni, zonaldeko epidemiologo handia, eta esaten dut: ‘Erraza da, esan poliziari etxean geratzeko eta hartara kurba jaitsi egingo da’. Ze gomendio klase da hori! Erdi Aroan ere bazekiten hori, eta lehenago ere ziurrenik Errezilgo plazan. Ba tabernen kontuarekin berdin”. Galdera-erantzunen txanda heldzean gizon batek besoa altxa du, baina epidemiologoa dela jakitean kazetari guztiek alde egin dute. “Eiiii, egin kasu pixka bat joder, putakumeak!”. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Boxeo izarrak



SARDINTZARRA

Ffp2a gomendatzen du OMEk



ETBk Hannibal Lecterri buruz: “Beganoen aurkako borrokaren erreferente bat hil da”



Hannibal, Donostiara egindako bisita batean.

“Gaur goizean hil da Hannibal Lecter doktorea, puntako sukaldari, humanista eta beganoen aurkako borrokaren erreferentea”, ireki du eguerdiko albistegia ETBk. “Hogeita bost Michelin izarren jabe, COVID-19ak jota hil da bere plateretan giza-gibel eta babarrun, burmuin eta oilasko, intxaur eta onddo nahasten zituena ekintzailea”. Txorieneko kuartelean omenaldi hunkigarria egin diote “euskal

sukaldaritzaren beste dimentsio batera eraman zuen gizonari”. Nor talde antiespezistak ordea, sukaldaritzaren ulertzeko zuen modua gogor kritikatu du. Fiskaltzak adierazi du akzio legalak abiatuko dituztela haren figura iraindu duten guztien kontra. Bestalde, polemikaren harira Teleberriko aurkezle eta animatzaile Africa Baetak adierazi du asko gustatzen zaiola Bruce Springsteen. ●



19,5 €

%100 kotoi
organikoa



Kolore berriak!

Bost kolore aukeran:
Urdina, beixa, arrosa, berdea eta grisa.

Lurra herriari deika

Jaten dugun elikagai bakoitzarekin,
nekazaritza eta gizarte eredu bat bultzatzen
ari gara. Beraz, jatea bihur dezagun egunean
hiru bider egiten dugun plazerezko iraultza!

Erosteako: argia.eus/azoka 943 37 15 45

Agroekologia mugimendua
eta  **ARGIA** elkarlanean

Kamiseta erosita, 2 €-ko ekarpena egingo
dizu **agroekologia mugimenduari**
eta beste hainbestekoa ARGIAri.

OPARITU ARGIA

ZAINDU NAHI DUZUN HORRI

Puska dezagun izotza

